

**Erantzukizun Pertsonal eta Soziala eredia:
Gorputz Hezkuntzaren bidez jarrera positiboak
bultzatzeko esku-hartzea**

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Fernández Barajas, Bibiana.

ZUZENDARIA: Urrutia Gutierrez, Saioa.

LABURPENA

Azken hamarkadetan hezkuntza-eremuan aurrerapen handiak egin dira, hezkuntza tradizionalak balioa galdu baitu eta ikaslearengan arreta osoa jartzen duten hezkuntza-metodo modernoago eta osatuagoei bidea ireki baitzaie.

Gaur egun Gorputz Hezkuntza irakasgaia gauzatzeko hainbat irakaskuntza eredu aurkitu daitezke (kirol-hezkuntza, ikaskuntza kooperatiboa, Erantzukizun Pertsonal eta Soziala, etab.), horrela, irakatsi nahi diren edukien eta lortu nahi diren helburuen arabera egokiena aukeratu daiteke.

Lan honetan, Erantzukizun Pertsonala eta Soziala irakaskuntza-ereduan oinarritutako Unitate Didaktikoa diseinatu eta praktikan jartzen da, garai berriekin bat datorren materiala sortzeko eta Lehen Hezkuntzako ikasleekin gauzatzeko metodo eraginkorra den ezagutzeko helburuekin. Horretarako, esku-hartze horretan lortutako emaitzak aztertzen dira, helburuak bete diren ala ez ondorioztatuz.

Hitz gakoak: gorputz hezkuntza, irakaskuntza-ereduak, Erantzukizun Pertsonalaren eta Sozialaren eredia eta erantzukizun-mailak.

RESUMEN

En las últimas décadas se han dado muchos progresos en el ámbito educativo, haciendo que la educación tradicional haya perdido valor y se haya abierto paso a nuevos métodos educativos más modernos y completos que ponen su total atención en el alumno.

Hoy en día existen diferentes modelos de enseñanza con los que llevar a cabo la asignatura de Educación Física (educación deportiva, aprendizaje cooperativo, Responsabilidad Personal y Social, etc.), de manera que se puede elegir el más adecuado según los contenidos que se quieran impartir y los objetivos que se quieran conseguir.

En este trabajo, se diseña y se lleva a cabo una Unidad Didáctica basada en el modelo de enseñanza de Responsabilidad Personal y Social con los objetivos de crear material adaptado a los nuevos tiempos y descubrir si es un método eficaz para llevar a cabo con alumnos de Educación Primaria. Para ello, se analizan los resultados obtenidos a lo largo de dicha intervención, concluyendo si se han cumplido o no los objetivos marcados.

Palabras clave: educación física, modelos de enseñanza, modelo de Responsabilidad Personal y Social, niveles de responsabilidad.

ABSTRACT

In recent decades there have been many advances in the field of education, making traditional education less valuable and giving way to new, more modern and complete educational methods that put the complete attention on the pupil.

Nowadays there are different teaching models with which to carry out the subject of Physical Education (sports education, cooperative learning, Personal and Social Responsibility, etc.), so that the most appropriate one can be chosen according to the contents to be taught and the objectives to be achieved.

In this work, a Didactic Unit based on the teaching model of Personal and Social Responsibility is designed and carried out with the aim of discovering whether it is an effective method to carry out with Primary Education pupils and to analyse the results of this intervention, concluding whether or not the objectives set have been met.

Key words: physical education, teaching models, Personal and Social Responsibility model, levels of responsibility.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	4
2. JUSTIFIKAZIO PERTSONALA	5
3. MARKO TEORIKOA	6
3.1. Gorputz-hezkuntzako irakaskuntza ereduak	6
3.2. Erantzukizun Pertsonalaren eta Sozialaren ereduak (EPS)	7
4. HELBURUAK	15
5. METODOA	16
5.1. Lagina	16
5.2. Tresnak	16
5.3. Prozedura	22
6. EMAITZAK	25
7. EMAITZEN HAUSNARKETA ETA ONDORIOAK	29
8. MUGAK ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK	32
ERREFERENTZIAK	34
ERANSKINAK	36

1. SARRERA

Dokumentu honetan Lehen Hezkuntzako Graduari amaiera ematen dion azken lana aurkitzen da, hau da, Gradu Amaierako Lana. Lan honen helburu nagusia graduan zehar jasotako prestakuntza-edukiak eta eskuratutako gaitasunak eta trebetasunak biltzea da. Lan zehatz honetan, oro har, lantzen den gaia Gorputz Hezkuntzarekin zerikusia dauka: Gorputz Hezkuntza ereduaren bitartez.

Lanean zehar aipatuko den bezala, Gorputz Hezkuntza, beste irakasgai asko bezala, oraindik modu tradizionalagian irakasten da, garai berrietara egokitu gabe. Horregatik, lan honetan, eredu modernoago batean oinarrituta dagoen Unitate Didaktiko bat proposatzen eta aztertzen da. Unitate Didaktiko horrekin ez dira soilik eduki-motorrak gauzatzen eta, gainera, ikasleak saioen ardatz nagusia dira, hau da, ikaskuntzaren protagonistak. Eredu hori, GrALaren izenburuak ondo adierazten duen bezala, Erantzukizun Pertsonal eta Sozialaren eredu da (EPS).

Lan honen eduki guztien antolakuntza ondo ulertu ahal izateko, jarraian lanaren egitura azalduko da. Lan hau, nagusiki, bi atal handitan banatuta dago, eta horietatik lehena teorikoena da. Lehenengo atala marko teorikoa da, Erantzukizun Pertsonal eta Soziala ereduaren alderdi garrantzitsuenak ezagutzeko helburuarekin sortu dena. Horri esker, askoz argiago ulertuko da proposamen didaktikoa.

Bigarren atala, lehenengoa bezain teorikoa ez bada ere, mamitsuena da. Bertan, lehenik eta behin, lan honen helburu nagusiak eta azpi-helburuak adierazten dira. Bigarrenik, metodoa izeneko atala dago. Bertan, hiru alderdi modu zehatzean deskribatzen dira: zein ikasle talderekin eraman den proposamen didaktikoa, zein tresna erabili diren horretarako eta hasieratik amaierara jarraitu den prozedura. Hirugarrenik, esku-hartzea amaitu ondoren lortutako emaitza guztiz objektiboak aurkezten dira eta, azkenik, aurreko atalean azaldutako emaitzetatik ateratako ondorioak azaltzen dira.

Aipatu den bezala, lan hau bi ataletan banatuta dago, baina ehuneko ehunean osatu ahal izateko, amaieran mugen eta hobekuntza-proposamenen atala aurkitzen da. Lanaren azken atala izan arren, garrantzi berezia du, gogoeta horri esker proposamen didaktikoa hobetu daitekeelako, eta, horrela, lehen interbentzioan aurkitutako mugak etorkizunean saihesten lagundu dezakeelako.

2. JUSTIFIKAZIO PERTSONALA

Azken hamarkadetan, hezkuntza-eremuan aldaketa asko gertatzen ari dira, hezkuntza-sistema garai berrietara egokitzeko beharra gero eta handiagoa baita. Aldaketa horien ondorioz, pixkanaka hezkuntza-eredu erabat tradizional batetik eredu modernoago batera igarotzen ari da, ikasleak bere ikaskuntza prozesuaren protagonistak bihurtuz. Beharrezkoa da aipatzea aurrerapen hori ikastetxe askotan jadanik nabaritzen dela, baina beste zentro askotan oraindik ere ohiko irakaskuntza-metodo tradizionalak erabiltzen dira, irakasleak, oro har, erosoago eta seguruago sentitzen baitira. Egoera hau Lehen Hezkuntzako hezkuntza-etapan irakasten den edozein irakasgairi aplikatu dakioke, baina kasu honetan, Gorputz Hezkuntza da dagokion irakasgaia.

Gorputz Hezkuntza irakasgaia bere ibilbide osoan zehar garrantzi gutxien eman zaion irakasgaietako bat da; izan ere, irakasgai hau, askotan, jolastearekin, ondo pasatzearekin edo aisialdiarekin zuzenean lotu izan da. Hori dela eta, oraindik garrantzi gutxiago ematen zaio irakasgaiaren plangintzari, beraz, aurreko paragrafoan aipatzen den aurrerapena askoz ere motelagoa da. Gaur egun ikastetxe askotan irakasgai hau metodologia tradizionalen bitartez irakasten jarraitzen dela ikus daiteke, hau da, irakasleak jolasak proposatzen ditu edo ohiko mugimen-lanak esleitzen ditu eta ikasleek horiek gauzatzen dituzte. Gainera, askotan programazioen planifikazio falta handia ere suma daiteke, Gorputz Hezkuntzako ordu asko helburu zehatzik ez dituzten eta hurrengo saioetan egiten denarekin inolako loturarik ez duten hiruzpalau jokorekin betetzen direlako.

Aurreko bi paragrafoetan azaldutako arrazoiek nagusiki bultzatu naute Gradu Amaierako Lan honetako gaia aukeratzera, "Gorputz Hezkuntza ereduaren bitartez". Gai honek Gorputz Hezkuntzako saioak helburu zehatzekin planifikatu eta egituratzeko aukera ematen baitu. Baina, Gorputz Hezkuntza irakasgaiak dituen irakaskuntza eredu guztietatik, zergatik aukeratu Erantzukizun Pertsonalaren eta Sozialaren ereduak?

Lehen Hezkuntzako Graduan zehar egin ditudan hiru praktikaldietan, horietako bakoitzean Gorputz Hezkuntzako saioak ikusteko aukera izan dut. Beraz, Gorputz Hezkuntzako irakasgaia aurrera eramaten hiru irakasle behatu ahal izan ditut. Ikusi ditudan hiru egoera horiek hiru ezaugarri dituzte amankomunean:

- Oro har, eremu motorra baino ez da lantzen. Portaerak, jarrerak eta balioak azaletik landuz.
- Ikasleak ez dira jabetzen bere aurrerapenaz.
- Ikasleak ez dute ebaluazio prozesuan parte-hartzen.

Oinarrizko Hezkuntzarako Curriculumari buruzko Dekretuaren arabera (Hezkuntza, hizkuntza politika eta kultura saila, 2015), Gorputz Hezkuntzako irakasgaiak “portaera motor autonomoa errazten duten gaitasun eta trebetasun fisikoak garatu behar ditu... ongizate pertsonal eta soziala bermatuko dituztenak”. Gainera, “ikasleek ebaluazio-prozesuan parte-hartu behar dutela eta horretaz jabetu behar direla, parte-hartze hori ez badagoelako, nekez eragin ahal izango dutelako bere hobekuntzan” adierazten du.

Curriculumak irakasgai honi buruz aipatzen dituen hainbat gauza ikastetxeetan ez direla betetzen ikusita, eta aurretik aipatutako arrazoi guztiengatik, Gorputz Hezkuntzako irakaskuntza-eredu bat probatzea erabaki dut: Erantzukizun Pertsonalaren eta Sozialaren ereduak. Eredu honek, alderdi motorra lantzeaz gain, balioetan ikastea eta ikasleek bere ikaskuntza-prozesuan parte-hartzea sustatzen du, horrela, ikasleek ongizate pertsonala eta soziala garatzea lortzen da. Izan ere, irakasgai honek ikasleen jarrera eta balioak lantzea ahalbidetzen duten egoerak bizitzeko aukera ematen du, beraz, saio bakoitza ikasleei jarrera eta balio positiboak irakasteko aukera bat da.

3. MARKO TEORIKOA

3.1. Gorputz-hezkuntzako irakaskuntza ereduak

Gorputz Hezkuntzako irakaskuntza ereduak azkenengo hamarkadetan irakasgaiaren irakaskuntza birplanteatzearen beharrak sortzen ditu, egungo gizartearen eskaerak kontuan hartuta, ikasleen hezkuntza integralari modu esanguratsuan laguntzeko. Izan ere, Gorputz Hezkuntzako irakasgaiaren ibilbide osoan, haren irakaskuntzaren ikuspegia curriculum-eduki oso espezifikotik zentratu da, hala nola, kirol motak edo egoera fisikoa eta hauek modu isolatuan aurkeztu dira, inolako konexiorik gabe bata bestearekin eta ikasleek eduki horrekin duten esperientzia kontuan hartu gabe (Peiró eta Julian, 2015). Baina, irakaskuntza ereduak gaia lantzen hasi aurretik, berebiziko garrantzia du “eredu” kontzeptua ulertzea, gai honen kontzeptu nagusietako bat delako.

Eredu kontzeptua, modu labur batean, errealitatearen errepresentazio sinplifikatu gisa defini daiteke; horrela, ereduak azaldu nahi diren fenomenoaren egitura sinplifikatuak izango lirateke. Eredu kontzeptuaren definizio sinple hau hezkuntza arloa eraman behar da, ondorioz, oinarri hori hartuta irakaskuntza ereduak horrela definitu daitezke: irakaskuntza ereduak irakaskuntzarako plan globalak dira, hau da, irakaskuntzaren oinarri teorikoa zehazten dute eta hortik abiatuta irakaskuntza plana sortzen da (Contreras et al., 2017).

Azken hamarkadetan, Gorputz Hezkuntzarako eredu pedagogiko desberdinak sortu dira eta pixkanaka zerrenda nahiko zabala sortu da. Kasu honetan, ezagunenak eta osatuagoak daudenak aipatuko dira.

Irakaskuntza ereduak Gorputz Hezkuntzan (Contreras et al., 2017; Fernández-Río et al., 2016):

- *Kirol hezkuntza:* bere ezaugarri nagusiak talde-lana eta ikasleen erantzukizunen lagapena dira, ikasleen autonomia sustatzeko. Benetako kirol-praktiken esperientziak sortzeko planteatzen den eredia da. Esperientzia horietan, gazteek ikuspegi globaletik bizitzen dute kirola, eta mugitzeko gaitasuna, kirol-kultura eta praktikarako gogoia garatuko dituzte.
- *Ikaskuntza kooperatiboa GH-an:* ikasleek gainerako ikasleekin eta gainerako ikasleetatik ikasten dute, ikasleen arteko elkarrekintza eta interdependentzia positiboa errazten duen planteamendu baten bidez. Ikaskuntza kooperatiboa izateko hainbat ezaugarri bete behar dira, horien artean, interdependentzia positiboa, interakzio sustatzailea, erantzukizun indibiduala, talde prozesamendua eta gaitasun sozialak. Irakaskuntza eredu honetan ikasleek helburu komun bat lortzeko lan egiten dute.
- *Erantzukizun Pertsonalaren eta Sozialaren irakaskuntza:* ereduaren gakoa ikasleek banakako eta taldeko erantzukizun-jarraibideak hartzea da, gizarte-balioak kontuan hartuta. Eredu hau lan honen oinarria denez aurrerago, modu zehatzago batean azalduko da.
- *Irakaskuntza pertsonalizatua:* bere ezaugarri nagusiak erantzukizuna eta autogestio gaitasuna dira. Pertsona bakoitzaren hobekuntza bilatzen da plan bateratu baten bidez. Bertan, landu beharreko eduki guztiak aurkezten dira, eta ikaslea da, modu autonomoan, irakasleak aldeztatik diseinatu duen zereginaren bidez aurrera egiten duena.

3.2. Erantzukizun Pertsonalaren eta Sozialaren eredia (EPS)

Aurkeztutako Gorputz Hezkuntza eredu guztietatik, aurretik esan bezala, Erantzukizun Pertsonalaren eta Sozialaren irakaskuntzan arreta jarriko da lan honen oinarria delako. Hori dela eta, jarraian eredu hau zehazten duten nondik norakoak modu zehatzago batean azalduko dira.

EPS ereduak Hellison doktoreak sortu zuen 1978. urtean. Hellisonen eredu hau helburu zehatz batekin garatu zuen: gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden gazteei Gorputz Hezkuntza irakastea gizarteratzea ahalbidetuko dien programa baten bitartez. Beraz, EPS programaren ideia nagusia zera da: Gorputz Hezkuntzaren bidez aukera ematea norberaren erantzukizunak eta inguruan ditugun gainerako pertsonekin lotutako erantzukizunak maila-mailaz praktikatzea eta nor bere gain hartzea. Izan ere, Gorputz Hezkuntza irakasteko eredu honek ongizate pertsonala, errespetua eta enpatia bezalako balioekin lotzen da (Contreras et al., 2017). Zehatzago esanda, eredu honen gakoa ikasleek banakako eta taldeko erantzukizun-jarraitibideak hartzea da, gizarte balioak ardatz izanda (Fernández-Río et al., 2016). Horrela, gazteak beraien gizarte-ingurunean gizabanako eraginkorrak izan ahalko dira, bakoitzak bere bizitzak kontrolatzeko estrategiak txertatzen ikasiz (Ramon Llopis-Goig, 2011).

EPS ereduak ongizate eta garapen pertsonalarekin bi balio lotzen ditu, hala nola, esfortzua eta autogestioa. Hori gutxi balitz, garapenarekin eta gizarteratzearekin beste bi balio lotzen ditu: besteen sentimenduekiko eta eskubideekiko errespetua; eta besteen lekuan jartzeko eta entzuteko gaitasuna. Horregatik, ikasleak balio horiek ulertzeko eta haien arabera jokatzeko gai direnean, esan liteke ikasleek programa honetan erantzukizun pertsonal eta soziala deritzona lortu dutela (Escartí et al., 2006).

Baina zergatik landu EPS ereduak Gorputz Hezkuntzan eta ez beste irakasgai batean? Hainbat ikertzaile eta hezkuntza eremuan aritzen diren profesionalentzat, kiroldegiak sentimenduak eta emozioak esploratzeko, hausnartzeko, adierazteko eta partekatzeko leku aproposak dira. Azken batean, desberdintasunak eta aniztasuna modu positiboan kudeatzen ikasteko eta norberaren ekintzez arduratzeko guneak dira, eta, aldi berean, besteekiko errespetuzko gizarte-trebetasunak garatzea sustatzen dute. Gainera, gune horietan, batez ere, espazioa partekatu eta, askotan, besteekin batera lankidetzan aritu behar da (Ruiz et al., 2005). Guzti honek ez du esan nahi Gorputz Hezkuntzaren berezko trebetasun fisikoen garapena alde batera utzi behar denik, baizik eta horiek, EPS ereduak zehaztuta dituen helburuekin batera lortu behar direla. Llopis-Goig et al. (2011) aipatzen duten moduan, ereduaren ideia honetatik abiatzen da: bizitzan moldatzeko balioak eta trebetasunak Gorputz Hezkuntzako edukiekin batera ikastea.

EPS ereduak aurrera eramateko, hainbat printzipio metodologiko aintzat hartu behar dira, hauek ereduaren funtzionamendu egokia ahalbidetu dezaketena direlako (Vizcarra, 2003):

1. Printzipioa: Gorputz Hezkuntza irakasteko modua balioak uztartuz izango da.

2. Printzipioa: programaren emaitzek bizitzako beste testuinguruetan transferentzia izango dute.
3. Printzipioa: irakasleak protagonismoa galdu eta ikasleek protagonismoa irabaziko dute.
4. Printzipioa: ikasleei konfiantza eman behar zaie.

Interbentzio eredu hau mailaka eratzen da eta bost erantzukizun-maila osatzen dute. Erantzukizun-mailak zein behar ikasi behar den momentu horretan deskribatzen dute. Horretarako, estrategia ezberdinak erabiltzen dira. Hau, dudarik gabe, eredu honen ezaugarri nabarmenena da, azkenengo helburua lortzeko maila guztiak lortzea beharrezkoa delako, beraz, egitura piramidala eta progresiboa du. Hori dela eta, programa garatu ahala, ikasleek autonomia handiagoa lortzen dute (Alonso et al., 2008). EPS ereduak duen ezaugarri hau aintzat hartuta, irakaskuntza-eredu honek beste eredu batzuekin alderatuta abantaila du, mailen arabeko egiturari esker ereduak hezkuntza-testuinguruan aplikatzea errazagoa baita (Escartí eta al., 2006). Gainera, ikasleek maila ezberdinak eta bakoitzak dituen helburuak ezagutzea berebiziko garrantzia du. Modu horretan, ikasleek programan bizi dituzten egoerak ulertu ahal izango dituzte (Ruiz et al., 2006).

EPS ereduaren erantzukizun mailak:

1. *Gainerako pertsonetiko errespetua*: maila honetan dauden ikasleek saiorako proposatutako ekintzetan parte-hartzen dute, bizikidetzako giro egokia sustatuz (Pardo y García-Arjona, 2011). Hori dela eta, garrantzitsua da azpimarratzea maila honetan aurkitzen diren ikasleek inguruan dituzten gainerako pertsonak eta elkarbizitzarako oinarrizko arauak errespetatzeko gai izan behar direla. Gainera, bulkadak kontrolatzeko eta autorregulatzeko gaitasuna ere izan behar dute (Merino et al., 2017). Horregatik, ikasle batzuek jarduera guztietan modu oso aktiboan eta egokian parte-hartzen ez duten arren, ez dute oztokatzen gainerako ikasleek egiten ari direna.

“Ikasle batek ezin du parte-hartu proposatzen diren jardueretan, baldin eta ez bada gai bere portaera kontrolatzeko, beste ikasleek ikasteko duten eskubidean eta irakasleak irakasteko duen eskubidean ez eragiteko” (Hellison, 2011).

2. *Parte-hartzea eta esfortzua*: ikasleak planifikatutako jardueretan parte-hartzen dute, baina, kasu honetan, borondatez gauzatzen dituzte egin beharreko jarduerak. Hau da, irakasleak ez ditu parte-hartzera behartu behar, baizik eta haiengandik sortzen da parte-hartzeko beharra, une horretan bere zeregina hori dela barneratuta baitute (Contreras et al., 2017). Horregatik, erronkak onartzen dituzte eta

mugimen-trebetasunak praktikatzen dituzte, baina guzti hau irakaslearen gainbegiradapean gertatzen da (Vizcarra, 2003).

3. *Autogestioa*: ikasleak bere ikaskuntza-helburuak ezartzeko gai dira, baina, aurreko mailan ez bezala, irakaslearen ikuskapenik gabe egin ditzakete zereginak. Maila honetan autonomia maila handiagoa duten ikasleak kokatzen dira.
4. *Elkartasuna*: ikasleak gai dira ikaskideei laguntzeko, beste pertsonak eta materiala zaintzen ikasten dute eta besteen premiekiko sentikorak dira, hau da, empatia erakusten dute.
5. *Transferentzia*: ikasleek Gorputz Hezkuntzan EPS ereduaren bitartez ikasitako guztia beste testuinguru batzuetara transferitzeko gai dira, hala nola, jolastokira, etxera, ikasgelara, etab. (Contreras et al., 2017).

ERANTZUKIZUN-MAILA BAKOITZAREN OSAGAIK	
MAILAK	OSAGAIK
1. Gainerako pertsonetikiko errespetua	<ul style="list-style-type: none"> - Autokontrola - Gatazkak modu baketsuan konpontzeko eskubidea - Sartuta egoteko eskubidea
2. Parte-hartzea eta esfortzua	<ul style="list-style-type: none"> - Auto-motibazioa: parte-hartzea eta ahalegina - Esfortzua ikertzea eta zeregin berriak - Gainerakoekin ondo moldatzea
3. Autogestioa	<ul style="list-style-type: none"> - Nork bere burua zuzendu - Helburuak ezartzeko progresioa - Presioari aurre egiteko indarra
4. Elkartasuna	<ul style="list-style-type: none"> - Besteak zaindu eta lagundu - Sentikortasuna eta erantzuteko gaitasuna - Barne-indarra
5. Transferentzia	<ul style="list-style-type: none"> - Ikasitako ideiak kiroldegitik kanpo probatzea - Besteentzako eredia izan

1. Taula: erantzukizun-maila bakoitzaren osagaiak (Hellison, 2011).

Lehen aipatu den bezala, metodologia didaktiko honek abantailak eskaintzen ditu, hala nola, eredia planteatzeko erabiltzen den egitura, baina baita eragozpenak aurkitu daitezke. Aipatu behar da eredu honen beste abantaila nagusietako bat sinpletasuna dela; izan ere, ikasleek erraz antzeman ditzakete lortu behar dituzten helburuak, eta erraza izan

dakieke programaren saio bakoitzean lortu dituzten lorpenak autoebaluatzea, behin maila bat gaindituta hurrengora pasatzen delako eta horrela hurrenez hurren. Hala ere, planteamendua zerbait artifiziala da. Erantzukizunaren ikaskuntza, beste ikaskuntza-prozesu asko bezala, ez da modu lineal eta metatzailean ematea, ikaskuntza-prozesu gehienetan bezala, aurrerapenak eta atzerapenak sortzen direlako (Escartí, 2005).

EPS ereduaren egitura Gorputz Hezkuntzako saioetan:

Saioen egitura oso zehaztuta dago, saio guztietan sekuentzia berdina jarraitzen delako. Horri esker ikasleak saioen egitura horretara ohitzen dira eta arauak errazago barneratzeaz gain, haietzako une bakoitzean haiengandik espero dena jakitea errazagoa da (Escartí, 2005).

Hellisonek berak bost fasetan banatzen du saioa: harreman-denbora, sensibilizazio-hitzaldia, jarduera fisikoaren plana, talde-bilera eta auto-hausnarketa denbora (Hellison, 2011), baina, kasu honetan, EPS ereduaren egokitzapenetako bat kontuan hartuko da, Lehen Hezkuntzako ikasleek ari baikara. Garrantzitsua da kontuan hartzea programa hau, lehen aipatu dudana bezala, gizarte-bazterkeria jasateko arriskua duten eta portaera desegokiak dituzten gazte nerabeei aplikatzeko sortu bazen ere, ez dela beti horrela izan behar, portaera positiboen sustatzaile gisa erabil baitaiteke. Beraz, hainbat testuinguruetan eta hezkuntza-etapa ezberdinetan erabili daiteke (Contreras et al., 2017) Horietako bat, Lehen Hezkuntza izan daiteke hurrengo paragrafoan azaltzen den arrazoiagatik.

Ikasleen garapen afektibo eta emozionalak haurtzaro goiztiarreko esperientzietan oinarritzen da, baina haur guztiek ez dituzten harremanetarako eta errespeturako gaitasun emozional egokiak lortzen. Horregatik, beharrezkoa da benetako hezkuntza emozionaleko eta Erantzukizun Pertsonal eta Sozialeko programak garatzea (Ruiz et al., 2006).

EPS ereduaren erabilita, Lehen Hezkuntzako saio batean eman daitekeen egitura (Escartí, 2005):

1. *Kontzientzia hartzea*: saioaren hasierako unea da. Irakasleak ikasleei saio horren helburuak zeintzuk diren azaltzen die, hau da, egun horretan zer balio edo portaera ikasi behar dituzten. Ondoren, egin beharreko jarduera fisikoa eta jarduera hori egiteko arauak azalduko zaizkie. Azalpen guztiak eman ondoren, irakasleak ziurtatu beharko du ikasle guztiek ulertu dutela egunaren helburua, eta, orduan, saioaren hurrengo fasera igarotzeko unea izango da.
- *Erantzukizuna ekintzan*: une horretan, ikasleen erantzukizuna martxan jarri behar da, ahaztu gabe jarduera fisikoaren bidez egin behar dela. Hau da, lortu nahi diren

erantzukizun-helburuekin batera Gorputz Hezkuntzako edukiek joan behar dute, eduki horietako edozein baliagarria izan baitaiteke saioan ezarritako helburuak lortzeko.

- *Talde-topaketa*: jarduera fisikoarekin bukatzen den unean gertatzen da. Horretarako, ikasleak eta irakaslea, ahal izanez gero, biribil batean elkartzen dira. Hau saioa nola igaro den jakiteko iritziak, sentimenduak eta sentsazioak partekatzeko unea da. Horrela, fase honekin amaitzeko, irakasleak aurkeztutako ideia guztien gogoeta txiki bat egingo du. Fase honetan hitz errazak erabiltzea eta modu zuzenean egitea garrantzitsua da, ikasleek mezua ahalik eta argien jaso dezaten.
- *Ebaluazioa eta autoebaluazioa*: aurreko faseko posizioa utzi gabe, ikasleek, egun horretarako programatutako zereginen maila kontuan hartuta, beraien portaera eta ikaskideena ebaluatu beharko dituzte. Horretarako, errazak eta ikusizkoak diren estrategiak erabili behar dira, ikasleentzat ahalik eta ulergarriena izan dadila.

Gorputz Hezkuntzako saioetan EPS eredua txertatzeko erabili beharreko estrategiak (Escartí, 2013; Merino, 2017):

EPS eredua saioak egituratuta izateaz gain, saio horiek aurrera eramateko eta helburuak betetzeko, irakasleak martxan jarri behar dituen hainbat estrategia ezarrita ditu. Estrategia horiek bi multzotan banatzen dira: estrategia orokorrak eta estrategia espezifikokoak.

Estrategia orokorrak: EPS eredua erabiltzen den saio guztietan ezartzen dira. Hau da, eredu hori gauzatzen hasten denetik amaitzen den arte aurrera eramaten diren estrategiak dira.

- Errespetuaren eredu izatea: irakasleak errespetua erakutsi behar du, ikasle bakoitzarekiko eta talde osoarekiko.
- Itxaropenak finkatzea: ikasleei saioak aurrera nola eramango diren argi uztea, hala nola, eginkizunak, arauak, etab.
- Arrakasta izateko aukerak ematea: saioak prestatzea ikasle guztiek arrakasta izan dezaten.
- Interakzio soziala sustatzea: interakzio sozial positiboa sustatzen duten saioak egituratzea, kooperazioaren, talde-lanaren eta arazoaren ebazpenaren bitartez.

- Atazak esleitzea: ikasleei berriazko erantzukizunak esleitzea. Adibidez, materiala jasotzea edo partida batean puntuazioa kontrolatzea.
- Lidergoa: ikasleei talde baten buru edo arduradun izaten uztea. Hala nola, jardueraren bat azaltzea edo erakustea.
- Hautaketa eta ahotsa ematea: ikasleei hitz egiten eta hautatzen uztea. Hau da, haien beharrak eta iritziak aurkezteko aukera ematea.
- Rola ebaluazioan: ikasleak ikaskuntzaren ebaluazioan parte-hartzea, jarraitzen duten prozesuaz kontziente izateko.
- Transferentzia: ikasleei saioetan ikasitako trebetasunak beste testuinguru batzuetan aplikatzeko aukerari buruz hitz egitea.

Estrategia espezifikoak: estrategia orokorrak osatzen dituzte eta lantzen ari den erantzukizun-mailaren arabera erabili behar dira. Beraz, erantzukizun-maila bakoitzeko estrategia espezifikoak dira (Hellison, 2011).

- *1. Maila: Gainerako pertsonetikiko errespetua*
 - Arauak aldatzea: ikasleei guztiek parte-hartzeko eskubidea duten ideia izaten laguntzen dieten jolasak erabiltzea edo egokitzea. Hau da, jokoaren arauak aldatzea, ikasle guztiek parte-hartzeko aukera izan dezaten, inor baztertuta sentitu gabe.
 - Taldeak egitea: maila honetako arazo bat beste ikaskideak ez errespetatzea da. Baina horrelako jarrerak ekiditu daitezke. Adibidez, taldeak egiterako orduan, kapitainen estrategia erabiltzeaz gain, beste modu batean egitea. Ikasle guztiak taldearen parte sentitzeko eta talde justuak sortzeko.
- *2. Maila: Parte-hartzea eta esfortzua*
 - Zeregina aldatzea: irakasleak ariketak guztiz zuzendu beharrean, ikasleak lana aldatzera animatu daitezke, beraien buruari erronka egiteko, adibidez, ariketaren zailtasuna areagotzen edo murrizten utziz.
 - Intentsitate eskala: ikasleei 0tik 10era bitarteko zenbaki bat esleitzeko eskatzen zaie, saioan egiteko prest dauden ahalegina hobeto adierazten duena. Estrategia hori erabiltzeko moduetako bat honako hau da: ikasleei jardueraren ondoren bere benetako ahalegina saioaren hasieran erabilitako eskala berarekin ebaluatu dezaten eskatzea, modu honetan konparaketa egin

dezakete. Hausnartzean, zehaztasun handiagoz iragartzeaz gain, batzuetan egiteko prest daudena gutxiesten dutela ere ikasten hasten dira; izan ere, adibidez, asko ez dira motibatuta sentitzen parte-hartzen hasten diren arte.

- Erronkak nor bere erritmoan egitea: ikasleei bere erritmoan aurrera egiteko aukera ematea da. Horrela, ikasleek erronkak pixkanaka betetzen dituzte. Ezin dute hurrengo zereginera igaro aurrekoa bete ez badute.

- *3. Maila: Autogestioa*

- Atazak modu independentean egitea: ikasleek lan independentea egitea irakaslearen zuzeneko ikuskapenik gabe, adibidez, hurrek ariketak askatasunez egin ditzaketen txokoak erabiliz.
- Laneko plan pertsonala: jarduera fisiko pertsonaleko plan batean helburuak ezartzea.

- *4. Maila: Elkartasuna*

- Taldeko helburuak: hurrak talde txikitan banatzea eta jarduerarako talde-helburu bat erabakitzea, adibidez, jarduera jakin bat zenbat denboran egin behar duten zehaztea. Horrela, bere talde-helburua lortzen saiatzen dira, bakoitzak jardueran zehar ahal duena emanez.
- Elkarrekiko irakaskuntza: ikasleek elkarrengandik ikastea, bere esperientziak eta ezagutzak partekatuz.

- *5. Maila: Transferentzia*


- Goi-mailako mailen arduraduna: adinen arteko irakaskuntza da, non ikasle esperientziadunek haur txikiagoei zer ikasi duten irakasten dieten.
- Komunitatearentzako zerbitzua: aurreko estrategia komunitateari ematen zaion zerbitzuaren adibide ona da; izan ere, trukean ezer espero gabe, ezagutzak eskuratu dituzten ikasleek, ezagutzak eskuratu ez dituztenei bere irakaskuntza transmititzen diete.

Estrategia orokorrak eta espezifikoak erabiltzearen helburua hurrak esku-hartze osoan zehar erantzukizun-mailekin elkarreaginean egotea da, ez bakarrik momentuan duten diziplina eta motibazioa hobetzeko, baita neska-mutilak garatutako jarrerak eta portaerak beste arlo batzuetara transferitzeko, horrela, bosgarren eta azken maila, transferentzia, lortzeko (Sánchez-Alcaraz et al., 2020).

Vizcarrak (2003) adierazten du, EPS ereduaren inguruan hitz egitean, badirudi konkortutako termino bati buruz hitz egiten ari garela, hau da, zehazki aplikatu behar den eredu edo metodo bati buruz. Izan ere, eredu berean adierazten dira lortu beharreko mailak, zein ordenatan eta zein estrategiak erabiliz, saioen faseak zehazteaz gain. Baina EPS ereduaren egileak berak, Don Hellison, testuinguru guztietan ezar daitekeen eredu itxi bat ez dela adierazten du. Aitzitik, esku-hartze bat diseinatzerako orduan har daitezkeen hainbat ideia, estrategia edo metodoak direla argitzen du (Hellison, 2003).

Aurretik azaldu den bezala, irakaskuntza-prozesua prozesu oso konplexua da, hau da, ez da lineala. Beraz, irakasleak kontuan izan beharko du zein testuingurutan dagoen EPS eredu nola ezarriko duen erabakitze momentuan. Hala eta guztiz ere, autore batzuk saioen egitura errespetatzearen garrantzia azpimarratzen dute:

“Garrantzitsua da kontuan hartzea saioaren formatua errespetatzea ezinbestekoa dela; izan ere, ikasleek azkarrago aurrera egingo dute ondo egituratutako errutinak sartzen zaizkienean, beraiek ezagutzen dituztenak eta erosoago sentitzen direnak” (Sánchez-Alcaraz et al., 2020).



1. Irudia: Erantzukizun Pertsonala eta Sozialaren ereduaren laburpena (propioa).

4. HELBURUAK

Aurretik azaldu den bezala, EPS irakaskuntza-eredua Don Hellisonek sortu zuen, gizarte-bazterketa jasateko arrisku handia eta portaera-arazo larriak dituzten nerabeekin gauzatzeko. Hala ere, EPS eredu irakaskuntza-eredu konpletua eta egituratua da, edozein egoeretara erraz egokitu daitekeena. Eredu honen bidez baloreak eta jokabide positiboak

lantzen direlako, EPS irakaskuntza-eredua edozein eskola-testuingurutan aplikatu litekeela pentsa daiteke. Sánchez-Alcarazek et al. (2020) EPS eredua erabili zuten ikerketa ezberdinen berrikuspena egin zuten eta bertan erakutsi zuten esku-hartze eredu honek, egoera sozial eta pertsonal bat ere ez positiboa duten nerabeengan emaitza onak izan dituela. Baina, eraginkorra izango da EPS eredua jokabide-arazo handirik eta gizarte-bazterketako arriskurik ez duten Lehen Hezkuntzako ikasleekin erabiltzen bada?

Lan honen helburu nagusia EPS eredua Lehen Hezkuntzako Gorputz Hezkuntzako saioetan modu eraginkor batean txertatu daitekeela frogatzea da eta arazo larririk ez dituzten ikasleen jokabide eta balio positiboak bultzatzen dituela egiaztatzea.

Honekin bat datorren azpi helburu bat planteatzen da aldi berean, eredu honen aplikagarritasuna: Gorputz Hezkuntzan metodologia eta eredu berriak martxan jarri daitezkeela irakaslearentzako neurri gabeko esfortzurik gabe.

PROPOSAMENAREN GALDERA ERAGILEA

Gorputz Hezkuntzan Erantzukizun Pertsonalaren eta Sozialaren irakaskuntza-eredua txertatzea eraginkorra al da arazo pertsonal eta sozial larririk ez dituzten Lehen Hezkuntzako ikasleen balio eta jokabide positiboak areagotzeko?

5. METODOA

5.1. Lagina

Erantzukizun Pertsonalaren eta Sozialaren irakaskuntza eredua martxan jartzeko Lehen Hezkuntzako bigarren mailako bi taldeetako bat aukeratu da, zehazki 2.B taldea. Modu horretan, interbentzioan parte-hartu duten ikasleak 7 eta 8 urteko 25 haur izan dira. Hauek, Presentación de María kristau eskolako ikasleak dira, Vitoria-Gasteiz hirian kokatuta dagoen itunpeko ikastetxea.

Ikasle horiek, oro har, eskola-eremuan portaera-arazo handirik ez izateagatik eta arazo larririk gabeko gela konbentzionala izateagatik aukeratu dira bereziki. Horrez gain, ikasgela horretan, gizarte-bazterketa jasateko arriskua duten ikaslerik ez dago. Horri esker, EPS irakaskuntza eredua gatazkatsuak ez diren edo arazo gehiegirik ez dauden testuinguruetan duen eragina behatu daiteke.

5.2. Tresnak

Lan hau aurrera eraman ahal izateko, esku-hartzean, behaketan eta datu-bilketan (gehien bat kualitatiboak) oinarritutako metodologia erabili da. Hori posible izateko, hainbat baliabide erabili dira, zehazki sei, eta horiek guztiak funtsezkoak izan dira esku-hartzearen

hasieratik amaierara arte. Beraz, erabilitako tresnak, parte-hartzaileak erabakitzeko, esku-hartzea aurrera eramateko eta interbentzioari buruzko emaitzak eta ondorioak ateratzeko, beharrezkoak izan diren datuak jasotzeko ezinbestekoak izan dira. Tresna hauetako batzuk soilik irakasleak edo ikasleek erabili dituzte eta beste batzuk irakasleak eta ikasleek batera.

❖ ERANTZUKIZUN-MAILAREN ERRUBRIKA

Tresna hau errubrika sinple bat da, Don Hellisonen bere irakaskuntza-ereduan proposatutako bost erantzukizun-mailetako bakoitza erraz identifikatu ahal izateko diseinatua.

Errubrika bost ilarak osatzen dute; ilara bakoitza erantzukizun-maila bati dagokio, eta maila bakoitzaren ondoan hura definitzen duten irizpideak ageri dira. Horrela, eta legendaren laguntzaz, maila bakoitzari dagozkion irizpideak betetzen diren ala ez jakin daiteke.

1. MAILA	Parte-hartzen dute.	Besteen iritzia eta izateko <u>modua</u> errespetatzen dute.	Ez dituzte ikaskideak jotzen/iraintzen.	Materiala, <u>puntualitatea</u> , arropa... errespetatzen dute.	<u>Bulkadak</u> kontrolatzen dituzte.	Ez dituzte beste ikaskideak oztapatzen.
2. MAILA	Ikasleek irakasleak behartu gabe parte-hartzen dute.	Ikasle guztiak maila berean parte-hartzen dute.	Gogoekin parte-hartzen dute.	Esfortua erakusten dute.	<u>Erantzukizunak</u> hartzen dituzte.	Ezarritako arauak errespetatzen dituzte.
3. MAILA	Irakaslearen <u>ikuskerak</u> gabe zereginak gauzatzen dituzte.	Erabakiak hartzeko gai dira.		Haien beharrak identifikatzen dituzte.	Haiek bakarrik lan egiteko gai dira.	
4. MAILA	Ikaskideak laguntzen dituzte.	<u>Egozentrismoa</u> alde batera uzten dute.	<u>Empatia</u> erakusten dute.	Trukean ezer espero gabe parte-hartzen dute.	<u>Ikaskideengatik</u> ardura erakusten dute.	Ikaskideak animatzen dituzte.
5. MAILA	GH-an ikasitako balioak eta jarrerak beste testuinguruetan aplikatzeko gai dira.					

IRIZPIDEA BETETZEN DA IRIZPIDEA EZ DA BETETZEN IRIZPIDEA EZ DA BEHATU

2. Irudia: landu beharreko erantzukizun-maila erabakitzeko errubrika.

Tresna hau bi modutan erabiltzen da:

- Prozesuaren hasieran: EPS ereduaren oinarritutako esku-hartzea gauzatuko den taldea zein erantzukizun-mailatan dagoen identifikatzeko eta, horri esker, talde horrekin zein maila landuko den erabakitzeko.
- Prozesuaren bukaeran: erantzukizun-mailari dagokionez esku-hartzeak zenbateko arrakasta izan duen jakiteko, eta zein irizpidetan egin den aurrera edo zein irizpide lortu den edo ez jakiteko.

❖ BEHAKETA FITXA (1. eranskina)

Fitxa hau saioetan gertatutakoari buruzko informazioa jasotzeko prestatuta dago. Bertan jasotzen den informazioa lantzen ari den erantzukizun-mailarekin lotura estua du. Kasu honetan, bilduko den informazioa bigarren erantzukizun-mailarekin lotuta dago, parte-hartzea eta esfortzua. Beraz, baliabide honi esker, saioan gertatutako alderdi garrantzitsuenen eguneroko erregistroa eraman daiteke.

Saio guztietan fitxa bera jaso beharreko informazio berdinarekin erabiltzen da, hau da, saio guztietan informazio bera jasotzen da. Horrela, esku-hartzearen amaieran, ikasleek alderdi horietan duten progresioa aztertu daiteke.

Behaketa fitxan honako alderdi hauek jasotzen dira (bigarren erantzukizun-maila):

- Ikasleen parte-hartzea.
- Parte-hartzea behartua edo boluntarioa.
- Ikasleen keak.
- Frustrazioa.
- Esfortzua.
- Ikasleen esaldi esanguratsuen bilketa.

❖ UNITATE DIDAKTIKOA (2. eranskina)

Unitate Didaktikoa esku-hartzearen ardatz nagusia da; izan ere, Unitate Didaktiko horren bidez, Gorputz Hezkuntzako irakasgaiari dagozkion edukiak garatzeaz gain, beharrezkoak diren estrategiak ezarri dira EPS ereduaren bidez lan egiteko.

Unitate Didaktiko hau Lehen Hezkuntzako bigarren mailako ikasleekin bigarren erantzukizun maila (parte-hartzea eta esfortzua) garatzeko diseinatu da. Bertan, Gorputz Hezkuntzako eduki motorrei erreparatuta, hainbat jarduera motaren bitartez, oreka lantzen da nagusiki, esaterako, erronkak, txokoak, zirkuituak eta jokoak. Beste bi alderdiak landu ahal izateko, hau da, parte-hartzea eta esfortzua oreka gai nagusi duen Unitate Didaktikoaren saio guztiak egitura berdinarekin sortu dira, alderdi hori EPS erduan pisu handia duelako. Hori dela eta saio guztiak lau ataletan zatitzen dira: kontzientzia hartzea, erantzukizuna ekintzan, talde topaketa eta ebaluazioa eta autoebaluazioa.

SEKUENTZIA DIDAKTIKOA			
1. SAIOA	Lehenengo erronkak.	5. SAIOA	Erreleboak.
2. SAIOA	Txokoak.	6. SAIOA	Zirkuitua sortu.
3. SAIOA	Jokoak.	7. SAIOA	Bigarren Erronkak.
4. SAIOA	Zirkuitua.		

2. Taula: Unitate Didaktikoaren sekuentzia didaktikoa.

Unitate didaktikoaren helburu nagusiak honako hauek dira:

1. Trebetasun motorrak garatzea, zehazki, oreka.
2. Unitate didaktikoan ezarritako erantzukizun-mailan aurrera egitea.

Lehen helburua lortzeko, Unitate Didaktikoa zazpi saioak osatzen dute, eta horietan oreka lantzen da. Saio horiek bi irizpideren arabera antolatu dira. Alde batetik, saioak jarduera motaren arabera antolatuta daude, hau da, saio bakoitzean jarduera mota bat egiten da eta, bestetik, saioen zailtasuna progresiboa izateko moduan ordenatuta daude. Beraz, saio horiek Unitatearen ardatz nagusia dira. Hala ere, bigarren helburua lehenengoa bezain garrantzitsua da, eta hori bete ahal izateko, marko teorikoan aipatu diren estrategietatik honako hauek ezarri dira:

- Estrategia orokorrak: errespetuaren eredu izatea, itxaropenak finkatzea, arrakasta izateko aukerak ematea, rola ebaluazioan eta hautaketa eta ahotsa ematea.
- Estrategia espezifikoak, parte-hartzea eta esfortzua erantzukizun-mailari dagozkionak: zeregina aldatzea, intentsitate eskala eta erronkak nor bere erritmoan egitea.

Estrategia horietako batzuk Lehen Hezkuntzako bigarren mailako ikasleekin gauzatu ahal izateko, beste hiru tresna diseinatu dira. Tresna horiek Unitate Didaktikoaren parte izan arren, esku-hartzea amaitu ondoren, datuak biltzeko eta aztertzeko erabili dira.

Azkenik, estrategia batzuk gauzatzeko diseinatu diren hiru tresnak deskribatu aurretik, Unitate Didaktiko honen ebaluazioa bi taldetan garatzen dela azaldu behar da, helburu orokorrak, lehen aipatu bezala, bi baitira. Horregatik, batetik, eduki motorrei dagokiena ebaluatzen da, eta, bestetik, lantzen ari den erantzukizun-mailari dagokiona. Horretarako, ebaluazio-sistema hauek erabiltzen dira:

➤ Eduki motorrak:

- *Ebaluazio diagnostikoa:* Unitate Didaktikoaren hasieran (1. saioa) ikasleek dituzten gaitasunak behatuko dira. Ebaluazio hau behaketaren bitartez egiten da eta modu orokor batean ikasleen maila ezagutuko da.
- *Hetero-ebaluazioa:* Unitate Didaktikoaren bukaeran egingo da ebaluazio irizpideak dituen errubrika erabiliz. Garrantzitsuena ikasleek izan duten progresioa izango da, hau da, hasieratik bukaerara ebaluazio irizpideak adierazten duten gaitasunetan hobetu diren ala ez. Beraz, ebaluazio hau ikasleen aurrerapenak eta azkeneko emaitzak ezagutzeko balio du.

➤ Erantzukizun-maila:

- *Autoebaluazioa:* bi motatako autoebaluazio ematen dira. Alde batetik, saio guztien bukaeran egiten dena, hau da, talde ebaluazioa. Momentu horretan, saioan zehar gertatutakoaz hausnartzen da (ikasleak eta irakaslea). Hori esker, irakasleak saioan gertatutako alderdi esanguratsuenekin geratuko da eta, hori gutxi ez balitz, ikasleek haien jarreraz eta progresioaz kontziente izango dira. Beste aldetik, ikasle bakoitzak bere esfortzuaz egiten duen autoebaluazioa ematen da. Hau, saioaren hasieran eta bukaeran egiten da, modu honetan, ikasleek egiten duten esfortzuaz kontziente izaten dira.

** Ebaluazio diagnostikoa eta autoebaluazioa egiteko eta horietatik datuak jasotzeko jarraian azalduko diren tresnak erabiltzen dira.*

ESTRATEGIAK AURRERA ERAMATEKO TRESNAK

❖ ERRONKA FITXAK

Baliabide hau sortzearen helburu nagusia honako estrategia hauek gauzatu ahal izatea da: zeregina aldatzea eta erronkak nor bere erritmoan egitea. Hori lortzeko egitura berdina duten bi erronka fitxa sortu dira.

Bi fitxa hauek taula batez osatuta daude. Bertan, ikasle bakoitzaren zenbakiak agertzeaz gain, ikasleek modu progresiboan gaintitu beharko dituzten sei erronkak agertzen dira. Hau da, ikasleek aurreko erronka lortu gabe hurrengora ezin izango dira igaro. Baina aurretik aipatu den bezala, parte-hartzearen eta esfortzuaren erantzukizun-mailan erabiltzen den estrategietako bat zereginak aldatu ahal izatea da, ikasle guztiak arrakasta izateko aukera izan dezaten. Beraz, erronka bakoitzak berarekin moldaketa bat dakar. Ikasleek planteamendu hau ezagutzea berebiziko garrantzia du, hau da, ikasleek erronkak moldatu daitezkeela eta haiek irakasleari moldaketa hori eska diezaioketela jakitea.

Fitxaren diseinua irakasleak ikasle bakoitzak betetzen dituen erronkak eta eskatutako aldaketak azkar idazteko prestatuta dago, X batez betetako erronka markatuz eta lauki hori bera koloreztatuz, ikasleak aldaketa eskatu badu.

Esan bezala, erronka fitxak, bi fitxa dira. Lehenengo fitxa, Unitate Didaktikoaren hasieran erabiltzen da, modu horretan, irakasleak ebaluazio diagnostikoa egin dezake eta ikasleak gaiarekin kontaktuan jartzen dira. Bigarren fitxa, azkenengo saioan aurrera eramaten da. Azkenengo fitxa honetan agertzen diren erronken zailtasun maila, pixka bat handiagoa da, logikoa denez, ikasleek gaia landuta dutelako.

Baina zergatik erronkak hasieran eta bukaeran? Horrela eginez gero, bi gauza lor daitezke. Alde batetik, irakasleak ebaluazio diagnostiko bat egin dezake Unitate Didaktikoaren hasieran, eta “amaierako” ebaluazio bat bukaeran, modu horretan, ikasleek zein neurritan garatu duten lantzen ari diren motrizitate-gaitasuna behatu daiteke. Baina, horrez gain, planteamendu honi esker, ikasleek esku-hartzearen hasieran eta amaieran erakutsi duten ahaleginari eta iraunkortasunari buruzko ondorioak atera daitezke, eta, horrela, lantzen ari den erantzukizun-mailari dagokionez zenbat aurreratu den jakin daiteke, lortutako erronkak eta eskatutako moldaketa kopurua alderatuz.

❖ AUTOEBALUAZIO GARAPEN-TAULA

Tresna hau irakaslearena baino gehiago, ikasleena da; izan ere, ikasleek diseinatzen ez badute ere, ikasleek osatzen dute hasieratik bukaeraraino. Baliabide hau estrategia hauek garatzeko prestatuta dago: hautaketa eta ahotsa ematea eta rola ebaluazioan.

OREKA EGUNEN TALDEKO GARAPEN TAULA							
ARAUAK:							
Izarrak/Saioak	1. Saioa	2. Saioa	3. Saioa	4. Saioa	5. Saioa	6. Saioa	7. Saioa

**							
*							

3. Irudia: UD-aren garapen taula.

Tresna honen bi helburuetako bat ikasleek eurek, irakaslearen gidaritzapean beharrezko baldin bada, Unitate Didaktikoa hasten den unetik bete beharreko arauak ezartzea da. Horrela, arauak ez dira irakasleak inposatutako zerbait izango, baizik eta taldearentzat positiboa izango dela erabaki duten zerbait izango dira. Beraz, saioekin hasi aurreko lehen urratsa arauak erabakitzea izango da.

Bigarren helburua ikasleak arau horiek betetzearen ebaluazioan parte-hartzea da. Beraiek erabaki duten bezala zein arau ezarri, beraiek izan beharko dute saio bakoitzaren amaieran arauak bete dituzten ala ez hausnartzen dutenak. Horretarako, ikasleei hausnarketa hori egiten lagunduko dieten tresnak eskaini behar zaizkie, kontuan izan behar baita interbentzioa 7-8 urteko ikasleekin egiten dela. Horregatik, ikasleek izarren bidez arauen betetze-maila ebaluatzeko formatu bat sortu da.

Instrumentu hau kartoi mehe bat da eta bertan ikasleek erabakitako 3-4 arauak idatziko dira. Bertan, saio kopurua (kasu honetan 7) eta horietako bakoitzean lor daitekeen izar kopurua ere agertuko dira, bat eta bost artean. Saio bakoitzaren hasieran ezarritako

arauak gogoratuko dira eta saio bakoitzaren amaieran taldeak zenbat izar merezi dituen erabakiko da, arauetan oinarrituz.

❖ ESFORTZUA FITXAK

Baliabide hau ikasleentzat soilik pentsatuta dago, irakasleak ez baitu informazio gehiegirik jasoko tresna honetatik, hau da, esku-hartze tresna da, ebaluaziorako ez da erabiliko. Lehen Hezkuntzako bigarren mailako haurrentzat egokitutako baliabide honi esker, honako estrategia hau lantzen da: intentsitate eskala. Fitxa honekin, ikasleek bere esfortzu-maila zein den identifikatzen ikasi ahal izango dute. Horretarako, esfortzua fitxa bi galderaz osatuta dago eta horietako bakoitzaren azpian batetik hamarrerako eskala bat aurkitzen da. Honako hauek dira fitxan ageri diren galderak:

1. Zenbat gogorekin egingo dut gaurko saioa?
2. Zenbat gogorekin egin dut gaurko saioa?

Esan bezala, galdera bakoitzaren azpian eskala bat dago, batetik hamarrera, non ikasleek egingo duten esfortzua eta benetan egin duten esfortzua gehien identifikatzen dituen zenbakia koloreztatu beharko duten. Lehen hezkuntzako lehen zikloko ikasleak direla aintzat hartuta, eskalarekin batera, zenbaki baxuenen eta altuenen esanahia adierazten da marrazki baten bidez.

Baliabide hau ezartzearen helburu nagusia aurretik aipatutako estrategia (intentsitate eskala) aurrera eraman ahal izatea da; izan ere, horrela, ikasleak saioan egindako ahaleginaz jabetu ahal izango dira eta horri buruzko autoebaluazio txiki bat egingo dute. Garrantzitsua da modu anonimoan egitea eta ikasleek hori jakitea, horrela ikasleak ez baitira presionatuta sentituko, zintzoak izatea eskatuko baitzaie.

ZENBAT GOGOEKIN EGINGO DUT GAURKO SAIOA?									
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10



ZENBAT GOGOEKIN EGIN DUT GAURKO SAIOA?									
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

4. Irudia: esfortzua fitxa.

5.3. Prozedura

Gorputz Hezkuntzako saioetan EPS eredia gauzatzeko erabili diren tresna guztiak azaldu ondoren, atal honetan esku-hartze horren prozesu osoa zein izan den azalduko da, zein talderekin egingo den aukeratzen den unetik esku-hartzea amaitu eta ondorioak ateratzen diren arte. Prozesuaren urrats guztiak modu argian eta antolatuan azaltzeko, prozesua hiru fasetan banatuko da.

1. Fasea: taldearen hautaketa eta esku-hartzearen diseinua

EPS ereduan oinarritutako esku-hartzea hasi aurretik, garrantzitsua da bi alderdi egoki aukeratzea. Alde batetik, esku-hartzea zein talderekin egingo den aukeratu behar da, eta, bestetik, berebiziko garrantzia du ikasle horiekin landuko den erantzukizun-maila behar bezala hautatzeak; izan ere, maila altuegia aukeratuz gero, ia ezinezkoa izango da ikasleek hori lortzea, ez baitituzte aurreko mailetako gaitasunak garatu.

Lehenik eta behin, interbentzioa zein talderekin egin den aukeratzeko, behaketa-metodoa besterik ez da erabili. Taldea aukeratzeko, ez da ikasleen adina kontuan hartu, haien portaera baino ez da ikusi. Hau da, esku-hartze hau egiteko talde simple bat bilatu egin da, bizikidetzaz arazo handirik gabe eta gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden ikaslerik gabe. Horrela, ondoriozta liteke EPS eredu eraginkorra den ikasleak gatazkatsuak ez diren eta jokabide positiboak bultzatu nahi diren inguruneetan. Beraz, ezaugarri horiek kontuan hartuta eta zenbait gela bi astez aztertu ondoren, esku-hartzea Lehen Hezkuntzako bigarren mailako ikasleekin egin behar zela ondorioztatu zen, zehazki 2.B taldearekin.

Bigarrenik, taldea hautatu ondoren, haiekin landuko litzatekeen erantzukizun-mailaren gaineko aukeraketa egin ahal izateko, erantzukizun-mailaren errubrika diseinatu da, hau tresnen atalean jadanik azaldu da. Errubrika hau osatu ahal izateko, 2.B gelako Gorputz Hezkuntzako saioak beste bi astez behatu dira, guztira lau saio. Horrela, errubrika bete eta ikasleekin landu beharreko maila honako hau zela ondorioztatu ahal izan da: bigarren maila, parte-hartzea eta esfortzua. Hori izan da hautatutako maila, ikasleek ez baitituzten maila horren ezaugarri guztiak betetzen, eta, beraz, ezingo zen beste maila altuagorik landu.

Hasierako bi erabaki garrantzitsuenak hartu ondoren, esku-hartzeari forma ematen hasi behar da. Beraz, landuko den erantzukizun-maila erabaki ondoren, hurrengo urratsa landu beharreko gaia aukeratzea izan da eta, horrekin batera, zer estrategia ezarriko diren; izan ere, aurretik ondo azaldu den bezala, eredu hau Gorputz Hezkuntzako edukien bidez lantzen da. Alderdi motorrari dagokion landu beharreko edukia hautatzeko, ez da irizpide berezirik kontuan hartu, ikasleentzat beharrezkoa den eduki bat baino ez da landu; izan ere, EPS eredu, harekin txertatzen diren estrategien bitartez, edozein edukitara erraz egokitu daitekeen eredu da.

Kasu honetan, ikasleak zeuden ikasturtearen unea dela eta, haiekin oreka lantzea erabaki da, beraz, Unitate Didaktiko horren bidez, EPS eredu aurrera eraman da. Horretarako, lehenik eta behin, Unitate Didaktiko nahiko simple bat diseinatu da,

eduki-motorretan soilik arreta jartzen duena eta oinarri gisa balio izan duena. Ideia nagusia osatu ondoren, beharrezkoak izan diren moldaketak egin dira, EPS ereduaren bidez irakatsi ahal izateko. Horretarako, ereduaren estrategia orokorrak, eta, jakina, estrategia espezifikoak hartu dira kontuan, kasu honetan, parte-hartzea eta esfortzua erantzukizun-mailari dagozkionak. Hellsonek planteatutako estrategia horiek ugariak dira, beraz, denak batera erabiltzea ezinezkoa da. Horregatik, esku-hartzea egin den talderako bideragarrienak eta egokienak direnak aukeratu dira. Azkenik, estrategia horiek gauzatzeko ikasleen mailarako beharrezkoak eta egokiak diren tresnak diseinatu dira.

2. Fasea: interbentzioa aurrera eramatea eta datuak jasotzea.

Lehenengo fasea gauzatu ondoren, prozesu osoko faserik garrantzitsuenean eta biziena heltzen da, une honetan aurreko fasean diseinatutako guztia aukeratutako ikasle taldearekin praktikan jarriko baita.

Esku-hartzea 4 asteko iraupena izan du; izan ere, Unitate Didaktikoak zazpi saioz osatuta dago eta ikasleek astean bi Gorputz Hezkuntzako saio izaten dituzte. Zehazki, martxoaren 7tik apirilaren 8ra arte iraun du interbentzioa. Esku-hartze osoan zehar urratsez urrats jarraitu da aldeaz aurretik diseinatu den Unitate Didaktikoa, inolako aldaketarik egin gabe. Horrela, EPS ereduaren estrategia guztiak errespetatu dira.

Fase honetako beste alderdi garrantzitsu bat datu-bilketa da. Zeregin hori irakaslearen ardura da eta esku-hartzearen saio guztietan egin da. Aipatu behar da, interbentzio honetan jasotzen diren datu gehienak kualitatiboak direla. Hori dela eta, lan hori modu errazean egin ahal izateko, aurreko atalean azaldutako tresnetako batzuk erabili dira: erronka fitxak, behaketa fitxak, erantzukizun-mailaren azkenengo errubrika eta autoebaluazio garapen-taula. Garrantzitsua da aipatzea erronken fitxak esku-hartzearen lehen eta azken saioetan bakarrik erabili direla eta datuak modu egokian jaso ahal izateko, beste irakasle bati eskatu zaiola laguntza, ikasleen ratioa nahiko altua delako eta, irakasle batek, 25 ikasleren erronkei buruzko datuak bakarrik eta akatsik gabe hartzea nahiko zaila delako.

3. Fasea: datuen analisisia eta ondorioak atera.

Fase hau ikasle taldearekin Unitate Didaktikoa bukatu ondoren eman da. Hau aurrera eramateko, soilik datuak jasotzeko erabili diren tresnak aintzat hartu dira. Beraz, behaketa fitxak, erronka fitxak eta autoebaluazio garapen-taula aztertu egin dira. Horretarako, tresna horietan jaso diren datu esanguratsuenak hautatu eta aztertu dira. Bukatzeko, egindako datu

azterketa horretatik ondorioak jaso dira, modu horretan EPS ereduaren oinarritutako interbentzioa izan duen efektua ezagutu ahal izan dira.

6. EMAITZAK

Aurreko atalean aipatu den bezala, esku-hartzearen emaitzak datuak biltzeko erabilitako tresnetatik lortu dira. Beraz, emaitza horiek erakusteko unea iritsi da. Horretarako, atal honetan tresna bakoitzaren bidez lortutako emaitzak modu objektiboan azalduko dira, hau da, horiei buruzko ondorioak ateratu gabe.

❖ ERRONKA FITXAK

Erronken fitxak Unitate Didaktikoaren lehen eta azken saioan gauzatu dira. Hori dela eta, erabilitako estrategia honen emaitzak zeintzuk izan diren ezagutzeko, lehenik eta behin fitxa bakoitzaren emaitzak ateratu dira eta, bigarrenik, bi emaitzen alderaketa egingo da. Modu horretan, ikasleek estrategia honen bidez aurrera egin duten ala ez behatu ahal izango da.

Lehenengo erronka fitxatik honako emaitza hauek lortu dira:

- Erronka guztiak bete $\rightarrow 6 / 25 = \%24$ ikasle.
- Ikasle baten moldaketa eskaera maximoa $\rightarrow 3$ moldaketa.
- Moldaketa eskaera guztira $\rightarrow 25$ moldaketa.
- Moldaketa gabe erronka guztiak lortu $\rightarrow 1$ ikasle.

1. ERRONKA FITXA	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25
Zelaiaren alde batetik bestera ibili lerrotik ateratu gabe. M: zelai erdia																									
2 banku zeharkatu: 1 buruz gora, 1 buruz behera. M: bi bankuak buruz gora																									
Sokaren gainetik ibili. M: soka zuzen jarri																									
Hanka baten gainean 10 segundo egon. M: 5 segundo																									
Bankutik salto egin eta uztaiaren barruan jauzi bi hankak elkarrekin, hanka batekin eta bestearekin. M: distantzia murriztu																									
Txino batekin buruan zelaiaren alde batetik bestera joan lerrotatik ateratu gabe. M: zelai erdia																									


M = ikasleek eskatu dezaketen moldaketa (ariketa errazago egiteko).

 Moldaketa eskatu du \rightarrow GUZTIRA \Rightarrow 25 moldaketa eskatu.

5. Irudia: lehenengo erronka fitxa beteta.

Bigarren erronka fitxatik honako emaitza hauek lortu dira:

- Erronka guztiak bete $\rightarrow 7 / 24 = \%29,1$ ikasle.
- Ikasle baten moldaketa eskaera maximoa $\rightarrow 2$ moldaketa.
- Moldaketa eskaera guztira $\rightarrow 12$ moldaketa.
- Moldaketa gabe erronka guztiak lortu $\rightarrow 3$ ikasle.



6. Irudia: bigarren erronka fitxa beteta.

Bi emaitzen arteko alderaketa egiten bada, honako emaitza hauek lortzen dira:

1. Ikasle gehiago lortu dituzte erronka guztiak betetzea.
2. Moldaketa gutxiago eskatu dira.
3. Moldaketak eskatu gabe ikasle gehiago lortu dituzte erronka guztiak betetzea.

❖ AUTOEBALUAZIO GARAPEN-TAULA

Nahiz eta tresna hau batez ere ikasleak bere aurrerapenaz eta beraiek erabakitako arauak betetzen zituzten ala ez jabetzeko diseinatu den, emaitza batzuk bildu ahal izan dira haren bidez, estrategia horri esker saio bakoitzaren ebaluazio txiki bat erregistratuta geratu baita. Ikasleek saio bakoitzaren amaieran hausnarketa unean bete duten taula modu argiago batean ikusi ahal izateko, taula hori grafiko batean bihurtu da. Modu honetan, errazago behatu daiteke ikasleek izan duten tendentzia.

IKASLEEK ADOSTUTAKO ARAUAK


Irakaslearen azalpenak entzutea.

Jolasen/dinamiken arauak errespetatzea.

Gogoekin parte-hartzea

Ez haserretu edo haserretzen garenean lasaitzen saiatu.

OREKA EGUNEN TALDEKO GARAPEN TAULA



1. Grafikoa: ikasleek saio bakoitzean lortutako izarren adierazpena.

Grafikoan izarrek lortzeko joera goranzkoa dela argi ikus daiteke, hau da, saioak aurrera egin ahala, ikasleek izar gehiago lortu dituztela, beraz, esan daiteke estrategia eta tresna honek eragin positiboa izan duela ikasleen jarreran. Hala ere, nahiz eta grafikoan arauak betetzeko joera positiboa ikusi, grafikoari arreta handiz begiratzean oso deigarria den beste alderdi bat behatu daiteke. Grafikoak aurrera egin ahala, bi puntutan joera positiboa jaitsi egiten da, nahiz eta gero joera hori berreskuratu egiten den. Hori, batez ere, saio bakoitzaren diseinuak eragiten du. Beste modu batera esanda, saio bakoitzak bere izaera du, Unitate Didaktikoaren planteamendua saio bakoitzean jarduera mota ezberdin bat lantzea baita. Hori dela eta, saio batzuetan ikasleentzat askoz errazagoa da arauak betetzea, jarduera mota hori sinpleagoa delako, adibidez, zirkuitua. Hala ere, badira beste jarduera batzuk zailagoak egiten zaizkienak beraiek ezarritako arau guztiak betetzeko orduan, hala nola, jolasak edo erreleboak.

Laburbilduz, nahiz eta grafikoak behera egiten duen bi puntu horiekin topo egin, garrantzitsua da grafikoaren ikuspegi orokorrarekin geratzea. Autoebaluazio garapen-taula honetan arauetan islatuta ez dauden eta saioan gertatu diren alderdi asko ere eragina izan dutelako izar kopurua erabakitzeke orduan.

❖ ERANTZUKIZUN-MAILAREN ERRUBRIKA

Errubrika hau prozesuaren hasieran eta amaieran bete arren, atal honetan bereziki amaieran betetako errubrikan jarriko da arreta, bertan landutako erantzukizun-mailaren (parte-hartzea eta esfortzua) zein irizpide bete diren ikus daitekeelako. Hala eta guztiz ere, hasieran betetako errubrika ere kontuan hartzea berebiziko garrantzia du, erantzukizun-mailaren lanketan aurrerapena edo atzerapena egon den ondorioztatu ahal izateko.

Lehenengo errubrikan, hau da, landuko den erantzukizun-maila zehazteko erabili den behaketa taulan, lortutako emaitza honako hau izan da: ikasleekin bigarren erantzukizun-maila lantzea, aurreko mailako irizpide guztiak bete dituztelako, baina, bigarren erantzukizun-mailaren bi irizpide besterik ez bete dituztelako. Irizpide horiek, ikasleek irakasleak behartu gabe parte-hartzen dute eta ikasle guztiak maila berean parte-hartzen dute izan dira. Horrez gain, taulan, laugarren erantzukizun-mailaren bi irizpide ere betetzen direla ikus daiteke, hala nola, ikaskideak laguntzen dituzte eta ikaskideak animatzen dituzte. Hala eta guztiz ere, ezin da laugarren maila landu, aurreko mailen irizpideak betetzen ez direlako eta laugarren mailan betetzen diren bi irizpide horiek modu isolatuan hartzen direlako.

Bigarren errubrikaren emaitzak, hau da, landutako erantzukizun-maila gainditu den ala ez zehazten duen errubrikan bereziki bi alderdi zehazten dira. Alde batetik, erantzukizun-mailaren irizpideak betetzen diren ala ez eta, bestetik, irizpidean aurrera egin den. Bertan honako emaitza hauek lortu dira. Alde batetik, aurretik aipatutako bi irizpideak betetzen jarraitu dira eta, beste aldetik, ikasleek beste bi irizpide betetzea lortu dute: gogoekin parte-hartzea eta erantzukizunak hartzea. Hori gutxi ez balitz, ikasleek baita beste bi irizpideetan aurrerapenak izatea lortu dutela ikus daiteke. Irizpide horiek esfortzua erakustea eta ezarritako arauak errespetatzea izan dira.

Beraz, lortutako emaitza hauek aintzat hartzen badira, ikasleek landu den erantzukizun-maila nolabait gainditzea lortu dutela ziur esan daiteke. Egia da irizpidetako bi ez direla guztiz bete, baina haietan aurrerapen handia ikusi da. Beraz, interbentzioaren hasieran betetzen den errubrikaren eta interbentzioaren amaieran bete den errubrikaren arteko alderaketa eginez, emaitza aldekoa izan dela esan behar da, ikasleek landu den erantzukizun-mailan aurrera egin dutelako eta hasieran baino irizpide gehiago betetzea lortu dutelako.

LANDUKO DEN ERANTZUKIZUN-MAILA ZEHAZTEKO BEHAKETA TAULA

ERANTZUKIZUN-MAILAK	IRIZPIDEAK					
1. MAILA	Parte-hartzen dute.	Besteen iritziak eta izateko <u>modua</u> errespetatzen dute.	Ez dituzte ikaskideak jotzen/iraintzen.	Materiala, <u>puntualitatea</u> , arropa... errespetatzen dute.	<u>Bulkadak</u> kontrolatzen dituzte.	Ez dituzte beste ikaskideak oztopatzen.
2. MAILA	Ikasleek irakasleak behartu gabe parte-hartzen dute.	Ikasle guztiak maila berean parte-hartzen dute.	Gogoekin parte-hartzen dute.	Esfortzua erakusten dute.	<u>Erantzukizunak</u> hartzen dituzte.	Ezarritako arauak errespetatzen dituzte.
3. MAILA	Irakaslearen <u>ikuskapenak</u> gabe zereginak gauzatzen dituzte.		Erabakiak hartzeko gai dira.	Haien beharrak identifikatzen dituzte.	Haiek bakarrik lan egiteko gai dira.	
4. MAILA	Ikaskideak laguntzen dituzte.	<u>Egozentrismoa</u> alde batera uzten dute.	<u>Empatia</u> erakusten dute.	Trukean ezer espero gabe parte-hartzen dute.	<u>Ikaskideengatik</u> ardura erakusten dute.	Ikaskideak animatzen dituzte.
5. MAILA	GH-an ikasitako balioak eta jarrerak beste testuinguruetan aplikatzeko gai dira.					

IRIZPIDEA BETETZEN DA
 IRIZPIDEA EZ DA BETETZEN
 IRIZPIDEA EZ DA BEHATU

7. Irudia: erantzukizun-maila zehazteko errubrika.

LANDUTAKO ERANTZUKIZUN-MAILA GAINDITZEA LORTU DA? ERANTZUKIZUN-MAILA → 2. maila: parte-hartzea eta esfortzua

ERANTZUKIZUN-MAILAK	IRIZPIDEAK					
1. MAILA	Parte-hartzen dute.	Besteen iritziak eta izateko <u>modua</u> errespetatzen dute.	Ez dituzte ikaskideak jotzen/iraintzen.	Materiala, <u>puntualitatea</u> , arropa... errespetatzen dute.	<u>Bulkadak</u> kontrolatzen dituzte.	Ez dituzte beste ikaskideak oztopatzen.
2. MAILA	Ikasleek irakasleak behartu gabe parte-hartzen dute.	Ikasle guztiak maila berean parte-hartzen dute.	Gogoekin parte-hartzen dute.	Esfortzua erakusten dute.	<u>Erantzukizunak</u> hartzen dituzte.	Ezarritako arauak errespetatzen dituzte.
3. MAILA	Irakaslearen <u>ikuskapenak</u> gabe zereginak gauzatzen dituzte.		Erabakiak hartzeko gai dira.	Haien beharrak identifikatzen dituzte.	Haiek bakarrik lan egiteko gai dira.	
4. MAILA	Ikaskideak laguntzen dituzte.	<u>Egozentrismoa</u> alde batera uzten dute.	<u>Empatia</u> erakusten dute.	Trukean ezer espero gabe parte-hartzen dute.	<u>Ikaskideengatik</u> ardura erakusten dute.	Ikaskideak animatzen dituzte.
5. MAILA	GH-an ikasitako balioak eta jarrerak beste testuinguruetan aplikatzeko gai dira.					

IRIZPIDEA BETETZEN DA
 IRIZPIDEA EZ DA BETETZEN
 IRIZPIDEA EZ DA BEHATU

IRIZPIDEAN AURRERAPENA EGON DA

8. Irudia: landutako erantzukizun-maila ebaluatzeko errubrika.

7. EMAITZEN HAUSNARKETA ETA ONDORIOAK

EPS ereduan oinarritutako esku-hartze honetan lortutako emaitzak ezagutu eta aztertu ondoren, lanaren atal honetan emaitza horietatik ateratako ondorioak azalduko dira. Horrela, proposamen didaktiko honetarako planteatutako helburuak zenbateraino lortu diren jakin ahal izango da. Horretarako, lehenik eta behin, emaitza bakoitzarekin atera diren

ondorioak azalduko dira, eta, bigarrenik, proposamen didaktikoari buruzko ondorio orokor bat egingo da, espero diren emaitzak lortu diren ala ez adieraziz.

❖ Erronka fitxen emaitzen gogoeta

Erronka fitxak estrategiaren bitartez lortu diren emaitzak argi eta garbi aldekoak izan dira; izan ere, lehenengo saioan lortutako datuak azken saioan lortutako datuekin alderatuz gero, ikasleek erronketan moldaketa gutxiago eskatu zituztela behatzen da, eta, hori gutxi balitz, azken saioan ikasle gehiagok erronka guztiak gainditzea lortu zutela moldaketa bakar bat ere eskatu gabe ere ikusten da.

Berebiziko garrantzia du aipatzea azken saioan gauzatutako erronkak lehenengo saioko erronkak baino zailagoak zirela. Gai honek zalantza handi samarra sortu zuen erronkak diseinatzerakoan; izan ere, ez zegoen jakiterik ikasleen emaitzetan zenbaterainoko eragina izango zuen erronken zailtasuna igotzeak. Hala ere, modu egokian erabaki zen erronken zailtasuna handiagoa izan behar zela, ikasleekin oreka lantzen zazpi saio eman ondoren, lehen eguneko erronkak errazegiak izango baitziren, eta, beraz, emaitzak ez ziren guztiz fidagarriak izango. Hau da, ikasleei erronkak errazegiak suertatzen bazaizkie, ez dute esfortzu gehiegirik egingo erronka horiek gainditzeko eta, horrekin batera, ez dute moldaketak eskatzeko beharrik izango. Horregatik, zailtasun maila igotzean ikasle batzuek moldaketak eskatzeko gogo zutela behatu da, baina askok gogo horiek gainditu eta aurrera jarraitu zuten. Hori dela eta, erronken zailtasuna igotzean, modu argiagoan ikusi ahal izan da ea ikasleek hasieran adina moldaketa eskatu dituzten. Beraz, lortutako emaitza kontuan hartuta, ikasleek esku-hartzean zehar esfortzua, parte-hartzea eta iraunkortasun gaitasuna garatu dutela ondorioztatzen da, azken saioan erronkak betetzeko egindako ahalegina handiagoa izan delako.

❖ Autoebaluazio garapen-taula emaitzen gogoeta

Emaitza hauek, aurrekoak bezala, positiboak izan dira, aurreko atalean txertatutako grafikoan ikus daitekeenez, ikasleek pixkanaka izarren lorpenean aurrera egin dutelako. Hala ere, emaitza horiek ez dira guztiz objektiboak, hori dela eta, interpretatzeko konplexuagoak dira.

Ikasleek saio bakoitzean lortu dituzten izarrak ikuspegi orokor batekin aztertuz gero, zalantzarik gabe, izandako progresioa oso positiboa izan da. Hala ere, emaitza horiek zalantzarriak bihurtu ditzaketen bi alderdi kontuan hartu behar dira. Alde batetik, saio bakoitzaren izaera aintzat hartuta ikasleentzat arauak betetzea errazagoa edo zailagoa izan dela behatu da, beraz, saio horien ordenaren arabera emaitzak alda daitezke. Adibidez,

seigarren saioa zirkuitua sortzea izan beharrean, jokoan saioa izango balitz, ikasleek agian izar gutxiago lortuko zituzten, jokoetan arauak betetzea bigarren mailako ikasleentzat zailagoa dela ikusi delako. Bestalde, aipatu behar da denbora-tartea nahiko laburra izan dela emaitza zehatzegiak ateratzeko. Emaitza zehatzagoak lortzeko, eraginkorragoa litzateke erregistro bat egitea, adibidez, hiruhileko batean. Hala ere, saioak igarotzearekin batera, ikasleek arauak modu serioagoan hartzen zituztela hauteman da, barneratuagoak zituztelako eta arau horien garrantziaz ohartzen zirelako. Hainbestera non haietako batzuek, ikaskideren bat arau bat betetzen ari ez zela ikusten zutenean, gogoratu egiten baitzitzaion.

Beraz, tresna honen emaitzak oso fidagarriak ez diren arren, baliabide hau ikasleek arauen inguruko kontzientzia gehiago hartzeko eta horiek betetzearen garrantziaz ohartzeko eraginkorra izan da. Hori dela eta, ikasleek arauak errespetatzeko eta erantzukizunak hartzeko gaitasunetan aurrera egin dute.

❖ Erantzukizun-mailaren errubirikaren emaitzen gogoeta + hausnarketa orokorra

Azkenik, esan bezala, interbentzioaren inguruko ondorio orokorrak adieraziko dira. Horretarako, gogoan izan behar da, EPS ereduaren oinarritutako esku-hartze honen helburu nagusia Lehen Hezkuntzako ikasleen jokabide positiboak bultzatzea izan dela, gizarteratze-arazorik eta jarrera-arazo larriak ez dituzten ikasleekin, edozein testuingurutan ezar daitekeen hezkuntza-eredua dela frogatu ahal izateko. Hau, batez ere, erantzukizun-mailaren errubirikarekin lortutako emaitzei esker ezagutu da. Bertan, ikasleek parte-hartzea eta esfortzua erantzukizun-mailako hainbat alderditan aurrera egin dutela behatzen da. Hori dela eta, EPS ereduaren oinarritutako proposamen didaktikoaren emaitzak positiboak izan dira, beraz, orokorrean interbentzioarekin espero ziren emaitzak lortu egin dira. Gainera, gogoratu behar da emaitza hauek nahiko iraupen laburra izan duen esku-hartze bati dagozkiola. Beraz, ikasleekin landu nahi izan diren alderditan aurrerapen txiki horiek lortu izana lorpen handia da. Honek, eredu honekin denbora luzeagoan lan egingo balitz, seguruenik emaitzak are positiboagoak izango liritekeela erakusten du.

EPS ereduarekin lortu diren emaitzak aztertu ondoren, eredu hau Gorputz Hezkuntza irakasgaiaren ezartzeko egin den prozesuaz gogoeta egin da. Lehenik eta behin, berretsi da EPS eredu oso eraginkorra dela Gorputz Hezkuntzako saioak diseinatzerako orduan, edozein edukitara egokitu baitaiteke, hau da, aplikagarritasun erraza du, eredu oso egituratuta baitago. Gainera, Unitate Didaktikoa diseinatzerako unean, ereduaren duen indargune garrantzitsu bat topatu da: lortu beharreko erantzukizun-mailak bereizita egotea. Honi esker, askoz errazagoa izan da fokua balio edo jarrera jakin batzuetan jartzea eta balio edo jarrera horiek garatu diren ala ez behatzea. Hori gutxi balitz, oso eredu konpletua da;

izan ere, Gorputz Hezkuntzako ikasgaiaren eduki-motorrak lantzeaz gain, horien bidez erantzukizunarekin eta trebetasun pertsonal eta sozialekin lotutako balioak lantzen ditu.

Laburbilduz, esku-hartzea laburra izan bada ere, espero ziren emaitzak lortu dira, eta ikasleek bigarren erantzukizun-mailan (parte-hartzea eta esfortzua) ezarritako irizpide guztiak osorik gainditzea lortu ez badute ere, aurrerapen garrantzitsuak eskuratu dituzte. Horregatik, ikasleak ia prest egongo lirateke hirugarren erantzukizun-maila (elkartasuna) lantzen hasteko.

Amaitzeko, EPS ereduak ikasleen jarreran eragin positiboa izan duela aipatu behar da. Hori dela eta, agerian geratu da, hasieran eredu hau gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden eta jokabide-arazo larriak dituzten ikasleekin aurrera eramateko diseinatu zen arren, dagozkion egokitzapenak eginez, jokabide positiboak areagotu nahi diren edozein eskola-testuingurutan txertatu daitekeela.

8. MUGAK ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK

Lan hau amaitzeko eta, horrela, proposamen didaktiko bat egiten eta aurrera eramaten den lan batek dakarren prozesu guztia osatu ahal izateko, prozesu osoan zehar aurkitu diren mugak azalduko dira eta esku-hartzea hobetzeko proposamenak zeintzuk izango liratekeen adieraziko da.

Esku-hartzean zehar aurkitu den mugarik handiena denbora izan da eta horrek hainbat alderditan eragina izan du. Alderdi horietako bat asteen Gorputz Hezkuntzari eskaintzen zaizkion ordu kopurua da; izan ere, gaur egun asteen bi ordu baino ez zaizkio eskaintzen. Horren ondorioz, irakasgaiaren urteko saio-kopurua ez da oso esanguratsua, beraz, Unitate Didaktiko bakoitzari edo eman nahi den eduki bakoitzari behar duen denbora eskaintzea nahiko zaila suertatzen da. Normalean, Gorputz Hezkuntzako saioak erloju kontrakoak direla iruditzen da, gehienetan antolatutako jarduera guztiak egiteko denborarik ematen ez duelako. Baina, zentzu horretan, ez dago irakasleen esku hobekuntzarik egitea, irakasgai bati asteen eskaintzen zaizkion orduen kopurua erabakitzea ez baita bere eskumenen artean sartzen. Hala eta guztiz ere, ikastetxeen esku dagoen alderdi bat dago: gorputz-hezkuntzako asteko bi orduen distribuzioa.

Aurreko paragrafoan aipatutako azken alderdi hori ere denborarekin lotutako mugetako bat izan da. Esku-hartzea egin den ikastetxean, asteen Gorputz Hezkuntzako bi orduak bananduta daude asteen zehar. Kasu honetan, saioetako bat astelehenetan ematen da eta beste bat ostiraletan. Horrek saioen iraupenean ondorioak ekartzen ditu, kiroldegira joateko edo arropa aldatzeko unean denbora asko galtzen baita. Beraz, Gorputz Hezkuntzako asteko orduak bi badira, banaketa horri esker saio bakoitzeko 15 minutu gal

daitezke, gutxi gorabehera. Hori eragozpen handia izan da EPS ereduaren oinarritutako esku-hartzea egiteko orduan; izan ere, horrek, jarduera fisikorako denbora eskatzen duen bezala, hausnarketarako ere denbora eskatzen du. Saioaren amaieran hausnartzeko unea eredu honen une garrantzitsuenetako bat da, eta, askotan, denbora faltak negatiboki eragiten zion. Horregatik, proposatzen den hobekuntza honako hau da: Gorputz Hezkuntzako asteko bi orduak etengabe ematea, hau da, egun berean eta jarraian. Horrela, kiroldegira joateko eta jantziak aldatzeko galdutako denbora erdira murrizten da, astean behin bakarrik egin behar baita. Horrek aukera emango luke Gorputz Hezkuntzako saioak arreta handiagoz egiteko, eta, kasu honetan, azken hausnarketari behar duen denbora eskaini ahal izango lioke, jarduera fisikoari denborarik kendu gabe, bata bestearen mende dagoelako.

Aurkitu den beste muga bat, denborarekin erlazionatu zitekeena, ikasleen ratioa da. Irakaskuntza-eredu honek ikasle bakoitzari dedikazio asko eskatzen dio, helburua ikasle guztiek pixkanaka erantzukizun-mailak garatzea delako, beraz, jarraipena oso pertsonalizatua da. Ikasleen ratioa hain handia denez, tratua pertsonalizatua asko zailtzen da, ez baitago denborarik ikasle bakoitzari merezi duen denbora guztia eskaintzeko. Horrek ondorio bat edo beste dakar, adibidez, zailtasunak dituzten ikasleei denbora gehiegi eskaintzea (logikoa da, laguntza gehiago behar baitute) eta bestelako ikasle guztiak “alde batera” uztea. Hori ez da bidezkoa haientzat; izan ere, ikasle horiek zailtasun handirik ez badute ere, irakaslearen arreta eta beste ikaskideen jarraipen berdina behar dute. Egokiena ikasgeletako ratioak baxuagoak izatea litzateke, horri esker askoz errazagoa izango bailitzateke eredu landuagoak gauzatzea, hala nola, lan honetan aurrera eraman den ereduak, baina ikasgela bakoitzeko ikasle kopurua ez dago irakasleen esku; beraz, zaila da alderdi hori hobetzeko proposamen bat egitea.

Ikasleek hausnarketarako duten gaitasun urria ere muga handia izan da saioaren azken fasea (talde topaketa eta ebaluazioa) burutzeko orduan, batez ere Unitate Didaktikoaren lehen saioetan. Saioan zehar gertatutakoaz hausnartzeko unea iritsita, oso ikasle gutxi beren iritziak adierazten zituzten. Beraz, ikasle gehienek saioaren azken emaitza erabakitzeke orduan baino ez zuten parte-hartzen, hau da, zenbat izar irabazi zituzten erabakitzen zen unean. Hori ikasleak gogoeta egitera eta ondorioak ateratzera oso ohituta ez daudelako gertatzen da; izan ere, denborak aurrera egin ahala Lehen Hezkuntzako ikasgeletan hausnartzeko gaitasuna garatzeko lan gehiago egiten den arren, oraindik ez da behar beste lan egiten, horregatik, ikasleak blokeatuta sentitzen dira horrelako jardueren hasieran. Hala eta guztiz ere, saioak pasa diren heinean, hausnarketa unean, ikasleen parte-hartzea handitu egin da.

Prozesuan zehar aurkitu den eta aurrekoarekin nahiko lotuta dagoen azken oztopoa ikasleek azken emaitzari ematen dioten garrantzia da. Kasu honetan, ikasleek hausnarketa-unean garrantzi handiagoa ematen zioten azken urratsari, hau da, lortuko zuten izar kopuruari, aurreko urratsari baino, hau da, saioan gertatutakoaz guztion artean hausnartzeari. Hori dela eta, ikasle batzuek desmotibazioa erakusten zuten azken emaitza beraiek espero zutena ez zenean, nahiz eta jakin euren portaera egokia izan zela saioan zehar. Hau da, ikasle batzuek ez dute ulertzen azken emaitza (izarrak) taldeak osotasunean lortutakoa zela, baina bakoitzaren jarrera guztiz desberdina izan zitekeela. Horregatik, fokua hausnarketan jartzeko modua bilatu beharko litzateke, eta ez azken emaitzan, ikusizko baliabideak sortuz, baina aldi berean ez kuantitatiboak direnak. Nolanahi ere, aipatu behar da azken saioan aurrerapen guztiaren errepasoa egin zela, izarren grafikoa aztertuz. Une horretan, ikasleak Unitate Didaktikoan zehar izan duten aurrerapenaz jabetu ahal izan ziren. Oso erraz ikus zitekeen hobetu ziren ala ez.

ERREFERENTZIAK

- Alonso, C., Arruza, J.A., Barreal, J.M., Begega, M., Fernández, R., Fernández, C., Fernández, J.L., García, M., González, C., González, D., Llana, R., Montero, D., Montero, J., Nuño, P., Romero, S. y Suárez, D. (2008). Educación en valores a través de actividades físico-deportivas en jóvenes escolares: Programa Delfos.
- Contreras, O. Arribas, S. y Gitiérrez, D. (2017). *Didáctica de la educación física por modelos para educación primaria*. Síntesis.
- Escartí, A., Gutierrez, M., Pascual, C., Marín, D., Martínez, C. y Chacón, Y. (2006). Enseñando responsabilidad personal y social a un grupo de adolescentes de riesgo: un estudio «observacional». *Revista de educación*, (341) 373-396. [02 WEB Investigaciones A.qxd \(educacionyfp.gob.es\)](#)
- Escartí, A., Gutierrez, M., Pascual, C., Wright, P. (2013). Observación de las estrategias que emplean los profesores de educación física para enseñar responsabilidad personal y social. *Revista de psicología del deporte*, 22 (1), 159-166. [Observación de las estrategias que emplean los profesores de educación física para enseñar responsabilidad personal y social \(redalyc.org\)](#)
- Fernández-Río, J., Calderón, A., Hortigüela Alcalá, D., Pérez-Pueyo, A., y Aznar Cebamanos, M. (2016). Modelos pedagógicos en educación física: consideraciones teórico-prácticas para docentes. *Revista Española De Educación Física Y Deportes*, (413), Pág. 55–75. <http://www.reefd.es/index.php/reefd/article/view/425>

- Helliosn, D. (2011). *Teaching Personal and Social Responsibility Through Physical Activity*. (3. ed). Human Kinetics.
- Hezkuntza, hizkuntza politika eta kultura saila (236) (2015eko abenduaren 22a). *Euskal Autonomia Erkidegoan Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumaz ezartzen duena*. BOPV núm. 9. [1600141e.pdf \(euskadi.eus\)](#)
- Llopis-Goig, R., Escarti, A., Pascual, C., Gutiérrez, M y Marín, D. (2011). Fortalezas, dificultades y aspectos susceptibles de mejora en la aplicación de un Programa de Responsabilidad Personal y Social en Educación Física. Una evaluación a partir de las percepciones de sus implementadores. *Culture and education*, (23), 445-461.
- Merino, J.A., Valero, A. y Belando, N. (2017). El modelo de responsabilidad personal y social. Variables de estudio asociadas a su implementación. *EmásF: revista digital de educación física*, (49), 60-77. [Microsoft Word - EmásF 49 \(webcindario.com\)](#)
- Pardo, R. y García-Arjona, N. (2011). El Modelo de Responsabilidad: desarrollo de aspectos psicosociales en jóvenes socialmente desfavorecidos a través de la actividad física y el deporte. *Revista de psicología y educación*, (6), 211-222. [Microsoft Word - revistaparte1sumario.doc \(revistadepsicologiayeducacion.es\)](#)
- Peiró, C. y Julián, J.A. (2015). Los modelos pedagogicos en educación física. Un enfoque más allá de los contenidos curriculares. *Tandem*, (50), 10. [Revistas \(grao.com\)](#)
- Redondo, C. (2011). Coordinación y equilibrio: base para la educación física en primaria. *Innovación y experiencias educativas*, (39), 7. [CRISTINA REDONDO 1 \(csif.es\)](#)
- Ruiz, L.M., Rodríguez, P., Martinek, T., Schilling, T., Durán, L.J. y Jiménez, P. (2006). El Proyecto Esfuerzo: un modelo para el desarrollo de la responsabilidad personal y social a través del deporte. *Revista de educación*, (341), 933-958. [04_WEB Innovacion.qxd \(educacionyfp.gob.es\)](#)
- Sánchez-Alcaraz, B., Courel, J., Sánchez, C., Valero, A. y Gómez, A. (2020). El modelo de responsabilidad personal y social a través del deporte: revisión bibliográfica. *Retos*, (37), 755-762. [Archivos | Retos \(fecyt.es\)](#)
- Vizcarra, M.T. (2003). Análisis de una experiencia de formación permanente en el deporte escolar a través de un programa de habilidades sociales. (Tesis doctoral). Universidad del País Vasco, España.

ERANSKINAK

1. Eranskina

SAIOEN ONDORENGO BEHAKETAK							
Unitate Didaktikoa	Oreka	Saioa	2	Ikasgela	2.B	Ikasle kopurua	24
Ikasleen parte-hartzea	Txikia / Ertaina / Handia / Ikasle guztiek parte-hartu dute.						
Parte-hartzea behartu izan da edo haiengadik atera da?	Gehien bat behartuta / Gutxi batzuk behartu behar izan ditut / Guztiek nahi izan dutelako parte-hartu dute.						
Ikasleen kexarik egon ahal dira jarduerak egiteko orduan?	Bai / Ez Zein jardueran eta zein kexa?						
Frustrazioa agertu da?	Bai / Ez Zein izan da erreakzioa? Frustrazioa gainditu dute?						
Esfortzua nabari da ikasleen aldetik?	Gutxi batzuen aldetik / Gehienen aldetik / Guztien aldetik.						
Ikasleen esaldi nabarmenenak.							

2. Eranskina

KONTUZ, EZ ERORII!!							
Ikasgaia	Gorputz Hezkuntza	Gaia	Oreka	Maila	LH 2. maila	Saio kopurua	7
Proposamenaren justifikazioa:							
<p>Unitate Didaktiko hau Don Hellisonen sortutako Erantzukizun Pertsonal eta Sozialeko irakaskuntza-ereduan oinarrituta dago. Eredu hau ezartzea erabaki izanaren arrazoiak ikasleek jarduera fisikoak egiteaz gain haratago parte-hartzeko beharra da. Hau da, ikasleak euren aurrerapenez jabetzea eta, batez ere, Gorputz Hezkuntzako eskoletan duten jarreraz jabetzea.</p> <p>Gaur egun, ikastetxe askotan oso modu tradizionalen egiten dira Gorputz Hezkuntzako saioak, eta horren ondorioz askotan ikasleak irakasleak agindutako jarduera fisikoak egitera mugatzen dira ikasturte osoan zehar, jarraitzen ari diren prozesuaz jabetu gabe eta, gehinetan, beren aurrerapenez jabetu gabe. Hori gutxi balitz, balioak oso modu esplizituan landu daitezke Gorputz Hezkuntzako saioetan; izan ere, kiroldegian ikasleek, aske diren espezio batean elkarrekin bizitzeko gai izan behar dute eta beste ikaskideekin espazioa partekatu behar dute. Arrazoi horregatik Gorputz Hezkuntzan balioak lantzea oso aproposa da, baina, oro har, ez da behar den guztia lantzen. Horregatik, Erantzukizun Pertsonal eta Sozialaren ereduaren bidez oreka gaitasun motorra lantzen duen Unitate Didaktiko bat sortzea erabaki da; izan ere, horrela, irakasgaiaren alderdi motorra lantzeaz gain, hainbat balio landu ahal izango dira.</p> <p>Alderdi motorrari dagokionez, esan bezala, oreka lantzea erabaki da. Pandemia dela eta, azken bi urteetan, GH-ko saioetan materialaren erabilera asko murriztu da eta kontaktu askorik behar ez dituzten jardueretan oinarritu dira saioak. Hori dela eta, LH-ko lehenengo bi ikasturteetan dauden ikasleek GH-ko hainbat gai lantzeko aukera gutxiago izan dituzte, esate baterako, trebetasun motorrak lantzeko edo gehiago garatzeko aukera. Arazo hau, hau da, alderdi fisikoaren lanketaren falta, ikasle askoren gaitasun fisiko eta motorretan asko nabaritzen da. Beraz, trebetasun motorrak gaia lantzearen arrazoi nagusia hori izan da.</p> <p>Trebetasun motorrak modu egokian garatu ahal izateko, hainbat gaitasun landu behar dira, hala nola, koordinazioa, oreka, gorputz-eskema eta espazio-denboraren egituraketa. Beraz, kasu honetan oreka gaitasun-motorra aukeratu da.</p>							

KONTUZ, EZ ERORI!!!

Jarduera fisiko guztietan, orekak gorputzaren kontrolean oso funtzio garrantzitsua du, oreka zuzena izatea koordinazio dinamiko orokor on bat izateko funtsezko oinarria delako (Redondo, 2007). Azken hau eta aurretik azaldu den arazoa kontuan hartuta, LH-ko 2. mailako ikasleekin landu beharreko gai oso garrantzitsua dela ondorioztatzen da.

Azkenik, aipatu behar da, orekaren UD-ko honen leku egokia urteko programazioaren hasieran izango litzatekeela. Hau da, harrera UD-a egin ondoren. Horrela, ikasturtearen hasieran trebetasun motorrak landuko lirateke eta hurrengo hiruhilekoetan jarduera konplexuagoak egin ahal izango dira.

Arazo-egoera:

A. Testuingurua:

Trebetasun motorrak gure egunerokotasunean egin behar ditugun mugimenduak burutzea ahalbidetzen digute. Oreka gaitasun horietako bat da eta gure gorputza kontrolatzeko ezinbestekoa da. Urrutirago joan gabe, zutik mantentzeko behar dugu. Gainera, edozein desoreka egoeratan berronkatzeko gaitasuna izatea ezinbestekoa da erorikoak saihesteko.

B. Arazoa:

Gai al gara oztopo-zirkuitu bat sortzeko, non oreka beharko dugun gainditu ahal izateko?

C. Xedea:

Desoreka-inguruneetan mantentzeko eta mugitzeko oinarrizko trebetasunetako bat garatzea (oreka), ariketa mota desberdinen bidez, eta, horrela, gorputzaren gaineko kontrola mantentzea.

Eginkizuna:

Zirkuitu bat egitea aurreko saioetan erabilitako material guztiekin, non oreka behar den gainditu ahal izateko.

KONPETENTZIAK

A. Zeharkakoak:

Elkarbizitzarako konpetentzia

- Gatazkak elkarriketaren eta negoziazioaren bidez konpontzea.

Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia

- Informazioa ulertzea, buruz ikastea eta ulertutakoa adieraztea.

Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia.

- Planifikatutako ekintzak gauzatzea eta, beharrezkoa baldin bada, haiek doitzea.

B. Diziplinari dagozkionak:

Konpetentzia motorra

Helburu didaktikoak:	Ebaluazio irizpideak (Heziberri, 2015):	Lorpen-adierazleak:
<p>(1) Jarduera fisikoak egitean nork bere jarrerarekin arduratsua izatea, taldearen lan giro ona bermatzeko.</p> <p>(2) Segurtasunik ezeko egoerak gainditzea, jardueretan jarrera positiboarekin parte-hartuz edozein gainazal, mugimendu edo posturatan oreka mantentzen lortzeko.</p> <p>(3) Jarduera fisikoa egiteko arropa egokia eta higiene-ohiturak errespetatzea ohitura osasungarriak barneratzeko eta autonomiaz jokatzeko.</p>	<p>(1) Parte-hartzea eta gozatzea, bai alderdi motorrean, bai ikaskideekiko harremanetan.</p> <p>(2) Askotariko mugimenduak egitea, laguntza puntuak, zabalerak eta altuerak aldatuz oreka mantentzea.</p> <p>(2) Gorputza zenbait jarreratan jartzea eta orekatzea, tentsioa eta erlaxazioa kontrolatuz.</p> <p>(3) Jokabide aktiboa izatea, ariketa fisikoak osasunerako duen garrantzia aintzat hartuta eta higiene-ohiturak zaintzeko interesa izatea.</p>	<p>(1)</p> <ul style="list-style-type: none">- Aktiboki parte-hartzen du jardueretan eta jarrera positiboa du.- Kideekin elkarlanean aritzen da jarduera ezberdinetan.- Jardueren arauak errespetatzen ditu. <p>(2)</p> <ul style="list-style-type: none">- Orekari eusten dio euskarri-puntu ezberdinekin.- Objektuak orekan mantentzen ditu.- Gainazal altuetan orekari eusten dio.- Oztopoen gainetik segurtasunez desplazatzen da. <p>(3)</p> <ul style="list-style-type: none">- Arropa eta oinetako egokiak ekartzen ditu.- Higiene ohiturak errespetatzen ditu.

EDUKIAK

A. Kontzeptualak “jakin”

- Oreka behar duten eta oreka behar ez duten egoerak identifikatzea.

B. Prozedurazkoak “egiten jakin”

- Oreka estatikoa hainbat euskarri-punturekin esperimentatzea.
- Oreka dinamikoaren esperimentazioa hainbat egoeratan eta euskarri-puntu ezberdinekin.
- Objektuak gorputz-atal desberdinekin orekatzea.

C. Jarrerazkoak “izaten jakin”

- Ikaskideekiko errespetuzko jarrera izatea.
- Norberaren gogo indarra autoerregulatzea.

IRIZPIDE METODOLOGIKOAK

IRAKASKUNTZA EREDUA/METODOLOGIA

Erantzukizun Pertsonala eta Soziala

- Erantzukizun-maila: 2. maila, parte-hartzea eta esfortzua.
- Helburuak: ezarritako arauak betetzea, pertseberantzia izatea eta erantzukizun-mailan aurrera egitea.
- Estrategiak:
 - *Orokorrak*: errespetuaren eredu izatea, itxaropenak finkatzea, arrakasta izateko aukerak ematea, rola ebaluazioan eta hautaketa eta ahotsa ematea.
 - *Espezifikoak (erantzukizun-mailari dagozkionak)*: zeregina aldatzea, intentsitate eskala eta erronkak nork bere erritmoan egitea.

*Saio guztien hasieran eta bukaeran esfortzua fitxa bete (1. eranskina).

*Saio guztien bukaeran garapen-taula bete (2. eranskina).

Taldekatzea/Antolaketa:

UD honetan ikasleen taldekatze ezberdinak ematen dira, jarduera mota ezberdinak ematen direlako. Horrez gain, gehien bat erabiliko den taldekatze mota ikasleak lau-bost taldetan banatzea izango da (erreleboak, txokoak eta zirkuituak). Talde mota hauek ausaz sortuko dira. Horretarako, ikasleen parte-hartzea eskatuko da, hau da, ikasle bati zenbaki bat esatea eskatu eta beste bati eskuma edo ezker esatea, horrela, taldeak azkar sortzen dira. Ikasleak antolatzeko beste modu bat harrapatzaileak eta iheslariak egotea da. UD-aren saioetako batean jolasak egiten direnez, antolaketa mota hori beharrezkoa da. Hauetan, bolondrez bat baino gehiago agertzen direnean, harrapatzaileak irakasleak ausaz

erabakitzen ditu. Azkenik, jarduera batzuetan ikasleak banaka ibiliko dira, nahiz eta batzuetan talde baten barruan egon. Horri esker, haien erritmora esperimentatzeko aukera izango dute.

Taldeak antolatzeke ausaz egitea arrazoi bat dauka. LH-ko 2.mailan ikasleak oraindik nahiko txikiak dira eta neska eta mutilen artean arazo gehiegirik gabe erlazionatzen dira. Beraz, denbora askorik ez galtzeko eta saio guztietan talde ezberdinak egoteko, taldeak ausaz sortzeko estrategiak erabiltzea egokia da. Gainera, modu honetan, ikasleek talde mota ezberdinetan egoteko aukera izango dute.

Saioen sekuentziaren justifikazioa:

Saioak bi modutara antolatuta daude. Alde batetik, zailtasunaren arabera modu progresiboan ordenatuta daude. Modu horretan, ikasleak, bakoitza bere kabuz, UD-aren hasieran oreka egoerak esperimentatzen hasiko dira eta, ondoren, esperimentazio hori praktikan jarriko dute jarduera ezberdinen bitartez. Antolaketa horri esker, hasieran, ikasleek haien buruarengan segurtasun eta konfiantza gehiago hartzeko aukera dute. Bestetik saio gehienak jarduera mota arabera antolatuta daude. Adibidez, hirugarren saioan txokoak egiten dira, laugarrenean jokoak eta bosgarrenean erreleboak. Horrela, dinamika mota bat saio bakoitzean egiteak azalpenetan denbora gehiegi galtzea saihesten du.

Instalazioak/Materialak:

Materialari eta instalazioei dagokionez ez da eskatzen gauza handirik, ondorioz, ia edozein ikastetxetan aurrera eraman daiteke. Lehenengo saioko materialak (argazkiak eta sakoak) eskuz egiten dira eta gainerako saioetan behar diren materialak ia edozein kiroldegi eta ikastetxetan aurkitu ditzakegun materialak dira, hala nola, bankuak, sokak, konoak, etab. Gainera, material mota hauek oso errez ordezkatu daitezke antzeko ariketak proposatzen. Azkenik, aipatu behar da, saio batzuetan espazio nahiko behar dela, beraz, instalazioak zabalak izatea gauzak erraztuko lituzke. Hala eta guztiz ere, espazioa txikia bada, ariketak moldatu daitezke, adibidez, talde gutxiago sortzen. Egokiena kiroldegian egitea izango litzateke, saio batzuk jolastokian egin ahal diren arren.

SEKUENTZIA DIDAKTIKOA			
1. SAIOA	Lehenengo erronkak.	5. SAIOA	Erreleboak.
2. SAIOA	Txokoak.	6. SAIOA	Zirkuitua sortu.
3. SAIOA	Jokoak.	7. SAIOA	Bigarren Erronkak.


4. SAIOA	Zirkuitua.
-----------------	------------

EBALUAZIOA
<p>Unitate honetan zehar hiru ebaluazio mota egingo dira: hetero-ebaluazioa, autoebaluazioa eta ebaluazio diagnostikoa.</p> <p>- <u>Ebaluazio diagnostikoa</u>: UD-aren hasieran (1. saioa) ikasleek dituzten oreka gaitasunak behatuko dira. Ebaluazio hau behaketaren eta lehenengo erronka taula (3. eranskina) bitartez egingo da eta modu orokor batean ikasleen maila ezagutuko da.</p> <p>- <u>Autoebaluazioa</u>: UD-aren saio guztien amaieran egingo da. Ikasleek lehenengo saioan adostutako arauak bete diren ahal ez adieraziko dute, beraz, haien jarreraren progresioaz kontziente izango dira. Horrekin batera, saioen bukaeran hausnarketa hau eginez, irakasleak saioaren datu esanguratsuenekin geratuko da. Ebaluazio hau ikasleek egingo dute eta irakasleak beharrezkoa ikusten badu gidari bezala parte-hartu dezake. Ebaluazio mota hau garapen taularen bitartez egingo da (2. eranskina).</p> <p>- <u>Hetero-ebaluazioa</u>: irakasleak UD-aren bukaera egingo du, ebaluazio irizpideak dituen errubrika erabiliz (6. eranskina). Hala eta guztiz ere, garrantzitsuena ikasleek izan duten progresioa izango da, hau da, hasieratik bukaerara ebaluazio irizpideak adierazten duten gaitasunetan hobetu diren ala ez. Beraz, ebaluazio hau ikasleen aurrerapenak ezagutzeko balio du. Azken hau behaketaren bitartez egingo da.</p>

1. SAIOA: lehenengo erronkak			
Materialak	8 banku, 6 soka, 6 uztai eta 26 txino.	Denbora/Lekua	45 min Kiroldegia
Helburua	U.D-aren nondik norakoak argi izatea, saioetan zehar erabiliko diren baliabideak ulertzea eta ahalik eta erronka gehien betetzen saiatzea.		
ELKARTZE UNEA <i>(kontzientzia hartzea)</i>	<p>1. Borobilean elkartu eta UD berria aurkeztu.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zer da oreka? - U.D-an zehar erabiliko diren baliabideak azaldu: garapen taula eta esfortzua fitxak. <p>2. U.D-aren arauak zehaztu.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Guztion artean argiak diren 3-4 arau erabaki. Hauek garapen taula 		

	<p>betetzeko kontuan hartuko dira.</p> <p>3. Saioaren helburuak azaldu.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Adostutako arauak betzea. - Ahalik eta erronka gehien betetzen saiatzea.
<p>JARDUTEA (erantzukizuna ekintzan)</p>	<p>4. Erronkak.</p> <p>Kiroldegiko arbelean orekaren inguruko erronkak idatziko dira. Ikasleek lehenengo erronka bete beharko dute hurrengo erronka egin ahal izateko. Ikasleek, erronka ateratzen ez bazaie, modu errazago batean betetzeko aukera izango dute. Horretarako irakaslearengana joan beharko dira moldaketa eskatzera.</p> <p>Ikasleek erronkak betetzen dituzten ehinean irakasleak aupuntatuko ditu eta hurrengo erronka azalduko die. Saioa bukatzean irakasleak jasotako datuak gordeko ditu eta erronka fitxara garbira pasatuko ditu.</p>
<p>AGUR UNEA (talde topaketa / ebaluazioa eta autoebaluazioa)</p>	<p>5. Biribilean elkartu eta egindakoaz hausnartu.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Nola egin dugu saioa? Ondo, gaizki... zergatik? - Erronkak errazak ala zailak izan dira? Zein izan da gehien kostatu zaizuen? <p>6. Garapen taula bete.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hasieran zehaztutako arauk aintzat hartuta, guztion artean taldeko autoebaluazio egin eta emaitza erabaki.

2. SAIOA: txokoak			
Materialak	3 banku, espalderak, txinoak, uztaiak, sokak, 2 koltxoneta, pikak eta oreka irudiak.	Denbora/Lekua	45 min Kiroldegia
Helburua	Oreka dinamikoa eta estatiko garatzen hastea eta momentu bakoitzean egin beharrekoaz kontziente izatea (erantzukizuna hartzea).		
ELKARTZE UNEA (kontzientzia hartzea)	<p>1. Borobilean elkartu eta aurreko egunean egindakoa gogoratu.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zein da lantzen ari garen gaia? - Zer egin genuen aurreko egunean? - Zeintzuk dira bete behar ditugun arauak? <p>2. Saioaren helburuak azaldu.</p>		

	<ul style="list-style-type: none"> - Adostutako arauak betetzea eta momentu bakoitzean egin beharrekoa egitea.
JARDUTEA <i>(erantzukizuna ekintzan)</i>	<p>3. Txokoak</p> <ul style="list-style-type: none"> - YOGA POSTURAK: bi koltxoneta eta irudiak egongo dira. Ikasleek irudiak imitatu behar dituzte figura 5 segundoz mantenduz. - RAYUELA: uztaiekin rayuela jolasa sortuko da. Korapiloa eginda daukan soka bat erabiliko dute uztaien barruan botatzeko. - PIKAK EZ JAUZI: ikasle bakoitzak pika bat izango du. Biribilean jarrita bakoitza bere pika askatu behar du eta albokoaren pika hartu. - TXINOAK BURUAN: ikasle bakoitzak txino bat bere buruaren gainean jarriko du (txinoa alderantziz jarrita). Txinoarekin buruan lerroetatik ibili behar da, txinoa erori gabe. - BANKUAK ETA ESPALDERAK: bankuak espalderetara lotuta egongo dira eta bakoitzak maila desberdineko malda bat sortuko du. Beste banku batzuk lurrean egongo dira, baina hauek alderantziz jarriko dira, pasatu beharreko gainazala estuagoa izan dadin. Ikasleak askatasunez mugitu ahal izango dira banku guztietatik. 
AGUR UNEA <i>(talde topaketa / ebaluazioa eta autoebaluazioa)</i>	<p>4. Biribilean elkartu eta egindakoaz hausnartu.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zein da gehien gustatu zaizuen txokoa? Zein izan da zailena? - Txoko bakoitzean egin beharrekoa egin dugu? Nork ez du egin? <p>5. Garapen taula bete.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lehenengo egunean zehaztutako arauk aintzat hartuta, guztion artean taldeko autoebaluazio egin eta emaitza erabaki.

3. SAIOA: jolasak			
Materialak	Bankuak eta petoak (harrapatzaileak).	Denbora/Lekua	45 min Kiroldegia
Helburua	Jokoen bitartez oreka estatikoa garatzea eta jokoen arauak betetzeko erantzukizuna izatea.		
ELKARTZE	1. Borobilean elkartu eta aurreko egunean egindakoa gogoratu.		

<p>UNEA (kontzientzia hartzea)</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Zein da lantzen ari garen gaia? - Zer egin genuen aurreko egunean? - Zeintzuk dira bete behar ditugun arauak? <p>2. Saio honetan egingo dena azaldu.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Jokoak.
<p>JARDUTEA (erantzukizuna ekintzan)</p>	<p>3. Jokoak</p> <ul style="list-style-type: none"> - KOMEKOKOS: parte hartzaile guztiak kiroldegiaren lerroetatik ibili behar dira. Bi harrapatzaile daude eta hauetako batek beste ikasle bat harrapatzen badu, ikasle hori lurrean eseriko da. Harrapatuta dauden ikasle guztiak eserita egongo dira eta gainerakoak ezin izango dira hortik pasatu, harrapatzaileak izan ezik. - ALTURITAS: kiroldegian zehar hainbat banku alderantziz jarrita egongo dira. Ikasle bat harrapatzailea izango da. Gainerako ikasleak ihes egin behar dute, baina libratzeko banku baten gainean igo ahal dira (ezin dira 5 seg baino gehiago bankuaren gainean egon). Harrapatzaileak beste ume bat harrapatzen badu, libre geratuko da eta bestea harrapatzailea bihurtuko da. - OSTRUKA: aurreko jolasa bezalakoa da, baina iheslariak harrapatzailetik babesteko STOP esan behar dute eta hanka batean geldirik egon. Hauek berriz jolastu ahal izateko, gainerako iheslariak eskuan eman behar diote. - 1,2,3 KARABIN BON BAN: jokalaria bat paretan jartzen da, gainerako jokalariei bizkarra emanaz. Jokalari honek «1, 2, 3, karabin bon ban» esaldia esan behar du, besteek aurrera egiten duten bitartean. Esaldia esaten bukatzen duenean jokalaria azkar biratzen da, eta beste bat mugitzen ikusten badu, atzera egiteko agintzen dio. Hormara lehenengoa heltzen dena irabazten du.
<p>AGUR UNEA (talde topaketa / ebaluazioa eta autoebaluazioa)</p>	<p>4. Biribilean elkartu eta egindakoaz hausnartu.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Jolasetan parte-hartu dugu? Jolasen arauak errespetatu ditugu? <p>5. Garapen taula bete.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lehenengo egunean zehaztutako arauk aintzat hartuta, guztion artean taldeko autoebaluazio egin eta emaitza erabaki.

4. SAIOA: zirkuitua			
Materialak	4 banku, uztaiak, sokak eta txinoak.	Denbora/Lekua	45 min Kiroldegia

Helburua	Zirkuituaren bitartez oreka dinamikoa garatzea eta ikaskideen erritmoa errespetatzea.
ELKARTZE UNEA (kontzientzia hartzea)	<p>1. Borobilean elkartu eta aurreko egunean egindakoa gogoratu.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zein da lantzen ari garen gaia? - Zer egin genuen aurreko egunean? - Zeintzuk dira bete behar ditugun arauak? <p>2. Saio honetan egingo dena azaldu.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zirkuitua.
JARDUTEA (erantzukizuna ekintzan)	<p>3. Zirkuitua.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Irakasleak kiroldegian oreka lantzeko zirkuitua sortuko du. Ikasleek zirkuitu hori egin beharko dute. Ikasle bakoitzak bere erritmoan aurrera egingo du, horretarako, irakasleak, zirkuitua lasterketa bat ez dela argi utzi behar du. Ikasleren bat beste bat baino azkarrago badoa, lasaitasunez aurreratuko dio. • Bankuak (2 buruz gora eta 2 buruz behera). • Uztaiak (bi oinak elkarrekin salto egin). • Sokak (gainetik pasatu). • Hanka batekin salto alde batetik bestera. • Txinoa buruan (bakoitzak txino bat hartu buruan jarri eta ibili zehaztutako tartean). <p>* Aldaera: zirkuitua atzerantz egin.</p>
AGUR UNEA (talde topaketa / ebaluazioa eta autoebaluazioa)	<p>4. Biribilean elkartu eta egindakoaz hausnartu.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zirkuitua lasai eta ondo egin dugu? - Beste ikaskideen erritmoa errespetatu dugu? <p>5. Garapen taula bete.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lehenengo egunean zehaztutako arauk aintzat hartuta, guztion artean taldeko autoebaluazio egin eta emaitza erabaki.

5. SAIOA: erreleboak			
Materialak	Bankuak, uztaiak eta konoak.	Denbora/Lekua	45 min Kiroldegia
Helburua	Erreleboen bitartez oreka dinamikoa garatzea eta erreleboen arauak		

	betetzea.
ELKARTZE UNEA <i>(kontzientzia hartzea)</i>	<p>1. Borobilean elkartu eta aurreko egunean egindakoa gogoratu.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zein da lantzen ari garen gaia? - Zer egin genuen aurreko egunean? - Zeintzuk dira bete behar ditugun arauak? <p>2. Saio honetan egingo dena azaldu.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Erreleboak.
JARDUTEA <i>(erantzukizuna ekintzan)</i>	<p>3. Erreleboak.</p> <p>- Erreleboak egiteko 5 talde sortuko dira. Talde bakoitzaren aurrean egin beharreko zirkuitua egongo da (denak berdinak izango dira).</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Zatia→ hanka batean aurrera egin. 2. Zatia→ bankuaren gainetik pasa. 3. Zatia→ lau uztai zeharkatu bi hanka elkarrekin salto egiten. 4. Zatia→ konoari buelta eman eta hasierara bueltatu ibilbide berdina egiten. <p>* Aldaera: erreleboak eserita edo etzanda hasi.</p>
AGUR UNEA <i>(talde topaketa / ebaluazioa eta autoebaluazioa)</i>	<p>4. Biribilean elkartu eta egindakoaz hausnartu.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Taldea animatu dugu? Erreleboaren atal guztiak ondo egin ditugu? <p>5. Garapen taula bete.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lehenengo egunean zehaztutako arauk aintzat hartuta, guztion artean taldeko autoebaluazio egin eta emaitza erabaki.

6. SAIOA: zirkuitua sortu			
Materialak	Kiroldegian dauden material guztiak.	Denbora/Lekua	45 min Kiroldegia
Helburua	Aurreko saioetan ikasitako guztia zirkuitua sortzeko erabiltzea eta nork bere erantzukizunaz kontziente izatea.		
ELKARTZE UNEA <i>(kontzientzia hartzea)</i>	<p>1. Borobilean elkartu eta aurreko egunean egindakoa gogoratu.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zein da lantzen ari garen gaia? - Zer egin genuen aurreko egunean? - Zeintzuk dira bete behar ditugun arauak? <p>2. Saio honetan egingo dena azaldu.</p>		

	- Zirkuitua sortu.
JARDUTEA (erantzukizuna ekintzan)	3. Zirkuitua sortu. - Ikasleek kiroldegian dagoen material guztia erabili ahal izango dute zirkuitu bat sortzeko. Horretarako ikasleak lau taldetan banatuko dira eta talde bakoitzak zirkuitu bat sortuko du. Noski, oreka eskatzen duen zirkuitua izan behar da. Behin talde guztiak bukatzen dutela, talde bakoitzak bere zirkuitua azalduko du. Ondoren, ikasleek zirkuituak libre egiteko denbora izango dute.
AGUR UNEA (talde topaketa / ebaluazioa eta autoebaluazioa)	4. Biribilean elkartu eta egindakoaz hausnartu. - Taldea lagundu dugu zirkuitua sortzen? Gure ideia propioak partekatu ditugu taldearekin? 5. Garapen taula bete. - Lehenengo egunean zehaztutako arauk aintzat hartuta, guztion artean taldeko autoebaluazio egin eta emaitza erabaki.

7. SAIOA: bigarren erronkak			
Materialak	8 banku, 6 soka, 6 uztai eta 26 txino.	Denbora/Lekua	45 min Kiroldegia
Helburua	Ahalik eta erronka gehien betetzen saiatzea moldaketa gutxi eskatuz.		
ELKARTZE UNEA (kontzientzia hartzea)	1. Borobilean elkartu eta aurreko egunean egindakoa gogoratu. - Zein da lantzen ari garen gaia? - Zer egin genuen aurreko egunean? - Zeintzuk dira bete behar ditugun arauak? 2. Saio honetan egingo dena azaldu. - Erronkak.		
JARDUTEA (erantzukizuna ekintzan)	3. Erronkak. - Lehenengo saioan egindako berdina errepikatuko da, baina oraingoan, erronkak zailtasun maila handiagoa izango dute. Saioaren bukaeran irakasleak jasotako datuak, berriz, erronka fitxara garbira pasatuko ditu.		
AGUR UNEA (talde topaketa /	4. Biribilean elkartu eta egindakoaz hausnartu. - Nola egin dugu saioa? Ondo, gaizki... zergatik?		

<i>ebaluzioa eta autoebaluzioa)</i>	<ul style="list-style-type: none"> - Erronkak errazak ala zailak izan dira? Zein izan da gehien kostatu zaizuena? <p>5. Garapen taula bete.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lehenengo egunean zehaztutako arauk aintzat hartuta, guztion artean taldeko autoebaluzio egin eta emaitza erabaki. Azkenik, U.D-aren inguruko azken ondorioak atera.
-------------------------------------	--

UD: OREKA → EBALUAZIO IRIZPIDEAK				
Ikaslea:	BAI	EZ	NAHIKO	Oharrak
Aktiboki parte-hartzen du jardueretan.				
Jarrera positiboa du.				
Kideekin elkarlanean aritzen da				
Jardueren arauak errespetazen ditu.				
Orekari eusten dio euskarri- puntu ezberdinekin.				
Objektuak orekan mantentzen ditu.				
Gainazal altuetan orekari eusten dio.				
Oztopoen gainetik segurtasunez desplazatzen da.				
Arropa eta oinetako egokiak ekartzen ditu.				
Higiene ohiturak errespetatzen ditu.				